

**ZAAR** lk. zar.

**ZAATA** lk. zaráta.

**ZÁBAL1. zabal, zabála** (a). adjektiboa. Ancho, -a. *Zure autuak errubera zabalak dauzka.*

**zábaletara** (c). adberbioa. A lo ancho. *Luzetara ala zabaletara ebaikot tela au?/ Bokadillua filarmonikian moduan zabaletara artu ta marra-marra ziarduan.* Ant. **lúzetara**. **2. zabal** (b).

adberbioa. Zabalik. • Abierto. *Begixak zabal eukizu./ Besuak zabal artu giñuzen.* **Zabalik** esaten da normalean, eta **zabal** noiz edo noiz eta goikoaren antzeko testuinguruetan bakarrik. **zabal artu** (c).

esapidea. Lasai, patxadaz hartu. *Asieria eztok erreza izango, baiña ik zabal artu, eztok ainbesterako ta.* **zabal bizi** esapidea. patxadaz bizi. **zabal-zabal** (b). adberbioa. Oso zabalik. *Bentanak zabal-zabal eindda lagaittuzu.* **3. zabal, zabala** (c). izena. Leku lau eta zabala.

Toponimoetan ia bakarrik. *Goimendi-Galdaramiño inguruan eitten genduan perretxikotan. Inguru horretan Beizuko-zabala eta Buztingorri-zabala dittuk onenak.* (SB Eibetno).

**ZABÁLDU1. zabaldu** (a). da-du aditza. Abrir(se). Ant. **eregi. ántzu, antzúa** (c). adjektiboa. Umerik egiten eta esnerik ematen ez duen aberea edo pertsona. Antzutasuna pasakorra edo betirakoa izan daiteke. • Estéril. Animal o persona que no pare y no da leche. *Ardi antzuak aparte dauzkau./ Bei ori antzua da eta okelara saldu biakou./ Piñu zurixa dago an, piñu zurixa urtebetekua, da antxe dakadaz oiñ antzuak.* Enr. Pertsoneri buruz erreparoz erabiltzen da. **ántzu egon** (d). Antzutasun egoeran egon. Baita, aberea ernari ez egon estali berria izan arren. *Lelenguan eztok jakitten; gero bai: &ldquo;ernai dago ero antzu dago&rdquo;.* Don. lk. **ernári, bueltau**. **2. zabaldu** (b). du aditza.

Esparcir, extender. *Satsak zabaltzen diardu Julianek./ Oso zabaldua dago erderaz eitteko joeria.* **3. zabaldu** (b). du aditza. Ensanchar. *Sukaldia oso estua da ta zabaldu ein biou.*

**ZABÁLERA, zabáleria** (b). izena. Anchura. *Zabalera ederra dauka kamioi orrek.*

**ZABÁLIK** (a). adberbioa. Abierto.

**ZÁBAR, zabarra** (d). adjektiboa. Narrasa, arlotea. • Abandonado, -a. *Zabarra ba bastua danian, arlotia danian.* Klem. Gutxi erabilia.

**ZÁBORRA, záborria** (d). izena. Jenero txarra edo balio ez duena. • Género de pésima calidad, desperdicio. *Aurtengo babiak zaborra asko dauka./ Sagarra ugari artu dou baiña geixena zaborria.* Zaborra asko edo gutxi dagoela esan ohi da jeneroaren artean dagoen jenero txar edo balio ez duenarengatik. lk. **zaborreríxa, zádor**.

**ZÁBORRA, záborria** (d). izena. Jenero txarra edo balio ez duena. • Género de pésima calidad, desperdicio. *Aurtengo babiak zaborra asko dauka./ Sagarra ugari artu dou baiña geixena zaborria.* Zaborra asko edo gutxi dagoela esan ohi da jeneroaren artean dagoen jenero txar edo balio ez duenarengatik. lk. **zaborreríxa, zádor**.

**ZÁBORRA, záborria** (d). izena. Jenero txarra edo balio ez duena. • Género de pésima calidad, desperdicio. *Aurtengo babiak zaborra asko dauka./ Sagarra ugari artu dou baiña geixena zaborria.* Zaborra asko edo gutxi dagoela esan ohi da jeneroaren artean dagoen jenero txar edo balio ez duenarengatik. lk. **zaborreríxa, zádor**.

**ZABORRERÍXA1. zaborrerixa, zaborrerixía** (c). izena. Zarramarrak, hondakinak. • Suciedad, desperdicios, basura. *Ufala pasau ondoren egundoko zaborrerixia geldittu zan kaletan./ Ezin da sinistu be eiñ bodegan zeuan zaborrerixia.* **2. zaborrerixa, zaborrerixía** (c). izena. Zaborra, kalitate eskaseko jeneroa.

**ZABRÁZTA, zabraztía** (d). izena. ARBAZTA, GARBAZTA, ZARBAZTA. Arbazta. Arbola-adarra edo sastraka-abarra, zerbaitetarako erabiltzen denean. • Rama de árbol, matojo de brezo, etc. cuando se utiliza para alguna función. *Zabrazta bana artu eta sua emendatzera joan giñan basora./ Zabraztatxo batekin kenduixek eulixak irixei.*

**ZÁBUKA** (d). adberbioa. Burukadak emanez loguragatik edo. • Dando cabezadas de sueño. *Zabuka... balantzaka.* **Balantzaka** edo **estropozuka** adierazteko ere badirudi erabiltzen zutela

lehengo zaharrek, baina gaurkoek aipaturiko bi hitz horiek esaten dituzte, eta **zabuka**, berriz, burukadez, eta oso gutxitan. Ik. **lokábika**.

**ZÁDOR, zadórra** (d). izena. Errekak ekarritako orbela eta abar, presetan eta geratutakoa, ongarriztat erabili ohi zena. • Limo, lígamo. *Lenao presetara-ta orbela etortzen zuan, aura zadorra. Orbela geratu presan, usteldu, eta gero soorako eruaten zuan. Don.* Hemendik ote dator Arabako ibaiaren izena? Beste lekuko batek diosku azpigarritarako orbelari ere ZADOR esaten zitzaiola. Ik. **lurrústel, záborra**.

**ZAGÁZTARRO, sagáztarrua** (c). izena. ZARAZTARRO, KARRAZTARRO. *turdus viscivorus*. Neguan agertzen den txoria, birigarroa baino handixeagoa. Zorzal charlo *Bi zozo ta iru sagastarro arrapañtut*.

**ZÁI, záixa** (c). izena. Gari-azala, pentsutarako erabilia. • Salvado. *Artiriña ta zaixa emun ganauei*. Bi mota daude, **zai-zabala** eta **zai-birriña** edo **birzaixa**.

**ZAI-BÍRRIÑ, zai-birriña** (c). izena. Zahi xehea. • Salvado menudo. *Zai-zabala ta zai-birriña, bixak erabiltzen die pentsutarako./ Baiak lelengo zai-zabala botatzen eban, urrengo birriña, ta urrengo semolia. Aniz.* Sin. **birzái**. Ik. **basíllora, zai-zábal**.

**ZAIDUN OGI, zaidun ogixa** (c). OGI ZAIDUN. Pan integral. *Ez aaztu ogi zaiduna ekartzia. Gure amak hala esan ohi du.* Sin. **ogíbeltz**.

**ZÁILDDU1. zailddu** (b). da-du aditza. Nekeztu. • Hacer(se) difícil. *Entzunda nago aspaldixan zaildduta dagola kotxian karneta.* Sin. **nekéztu**. Ant. **erréztu, samúrdu**. **2. zailddu** (c). da aditza. Lanerako edo kirol baterako gogortu, kurtidu. • Curtirse, hacerse fuerte o hábil para un trabajo o deporte. *Ze uste dok pa, korredore ona izateko gaztetatik zailddu biok; parranda gutxi ta entrenau asko./ Ondo zailddutakuak izengo zien bai, lengo andrak eta gizonak erak e. JJp.* Ik. **kúrtidu**.

**ZÁILL1. zail, záilla** (a). adjektiboa. Difícil. Adinekoek ez dute asko esaten. Ubera-Angiozar aldean GAITZ edo GATX da esanagoa eta gainetikoan NEKEZ. Sin. **gáitz, nékez**. **2. záill, záilla** (c). adjektiboa. Gogorra, ximela. Haragiaz batik bat. • Se dice (sobre todo) de la carne dura o correosa. *Auxe aragi zaila, tiragomak eitteko modukua.* Ant. **samúrdu. eria baiño zailago** (c). esapidea. (Oñati) Hede baina zailagoa. • "Más duro, curtido (persona) que la correa del yugo." (Izag <i>Oñ</i>)

**ZÁINDDU** (a). du aditza. ZAINTTU. Cuidar(se). *Zainduizu zeure burua./ Ezta bape zaintzen. eskúa záinddu* (c). esapidea. Kaminoan, dagokion aldetik joan. *Kamiñuan zoiazengan zeure eskua zainduizu.*

**1. ZÁIÑ1. zaiñ egon** (a). aditza. Estar esperando. *Zure zaiñ dago.* NOREN zaiñ. **2. -zaiñ** (b). atzizkia. Zaintzen. Hitz konposatuaren bigarren osagai gisa. *Ganauzaiñ dago Mila./ Agostuan neu gelditzen naiz erri zaiñ./ Badauka naikua lan etxe zaiñ.* **3. -záiñ, -záiña** (c). atzizkia. Zaintzailea. Hitz konposatuaren bigarren osagai gisa. *Umezaiña joan ei jakue./ Tomas izete zan gurian etxezaiña.*

**2. ZÁIÑ, záiña** (d). izena. Zuztar mehea. • Raíz delgada. *Ikusi, zaiñak agiri jittuk. Don.*

**ZAITTU** aditza. "Echase a perder los alimentos." (SB <i>Eibetno</i>). </i> "Zahi bihurtu" ote?

**ZAI-ZÁBAL**, **zai-zabála** (c). izena. Birrindu gabeko zahia. • Salvado sin triturar. *Gustora jaten dabe beixak zai-zabala pentsuakin naastuta.*

**ZÁI-ZÁKU**, **zái-zákua** (c). izena. Saco de salvado (tanto el continente como el contenido). *Zai-zakuak eztau balio iriña gordetzeko. Zaku salga eta handiak dira.*

**ZÁKAR1. zakar, zakarra** (b). adjektiboa. Takarra. • Brusco, -a, de modales bruscos y rudos. *Ama izan eta eztaikitt umiekin ain zakarra zela izan leikien.* Ant. **takar. 2. káixo, káixua** (d). izena.

Larus sp. Kaioa. • Gaviota. Lehenago hitz arrunta omen zen, baina orain **gabiota** esan ohi da. *Esan beharra dago kaioak Bergararaino heldu ohi direla neguan eta aspaldi honetan udan ere bai inoiz.*

**2. zákar, zákarrek** (c). izena. Zikinkeriak. • Basuras, desperdicios. *Zenbaittek erre kara botatzeittu zakarrak.* Pluralean beti.

**ZAKARKERÍXA, zakarkerixía** (b). izena. Takarkeria. • Brusquedad. *Komisarixan zakarkerixia da nausi.* Ik. **takarkerixa.**

**ZAKARRÁLDI, zakarraldíxa** (c). izena. Norbait zakar dagoeneko aldia. • Momento de brusquedad. *Itxuria zakarraldin baten palizia emon zotsan neskatillia./ Arek zakarraldixa daukanian ezta giro izaten inguruan.*

**ZAKÁRRONTZI1. zakárrontzi, zakárrontzixa** (d). izena. Zakarrak botatzeko ontzia. • Recipiente donde se arrojan los despojos. *Zakárrontzixa... erabili bai. Zeoze zikiñak zertzeko ero...; banasta ero, zikiñak ara botatzeko ero, olako zeoze. Klem.* Ez da ontzi konkretu bat. Edozein, momentu hartan zakarrekin erabiliz gero. **2. zakárrontzi, zakárrontzixa** (c). adjektiboa. ( adierazkorra.) Zakarra, takarra. • De modales bruscos. *Zakárrontzixa... baldar samarra danian ero, zakarra; biolento samarra danian ero. Klem.* Ik. **zakar, -ontzi.**

**ZAKÁRTU** (b). da aditza. Volverse tosco, bruto. *Ziero zakartuta etorri da soldauxkatik.*

**ZÁKILL, zakílla** (d). izena. Malatsa, artzaien esne-irabiagailua. *Eitte zan korosti makilla batekin; batzuk zakilla be esate otsen. Don.* Igeltseroak masa irabiatzeko makila ere bai. *Beste bat zakilla izaten zan ieltseruak masia itteko ganbelan, bota ura, gero igeltsua. Zakilla ari be esaten jakon. Don.* Gizonen organoari, *txistu, txilibitu...* *Zakil ere bai gaur egun.* Ik. **malatx, txilíbittu.**

**ZAKO EIÑ** Ik. **sáko eiñ, sako euki.**

**ZÁKU, zakúa** (a). izena. Saco.

**ZAKU-ÁUNDI, zaku-aundíxa** (d). izena. Panza. Ik. **brántza.**

**ZAKÚ-PATATA, zakú-patatia** (b). izena. Patataz betetako zakua. • Saco de patata. *Iru zaku-patata jausi jatzu tratoretik.* Zenbaitek "zaku-patata" betetakoa eta "patata-zaku" hutsa dela argudiatu izan du. Biek betea adierazten dute, nahiz eta patata-zakuk hutsa ere esan nahi duen. Sin. **patáta-záku. zaku patatia emun** (c). esapidea. Gizena egon. *Joxepa ikusi najonan atzo ta zaku-patatia emoten jon./ Zaku-patatia bezelaxe dago.* Sin. pulpa-zakua emon. Ik. **pulpá-záku.**

**ZALAMALA, zalamalia** (b). izena. (Oñati) Nahasketa. *Azkenian ez euen ganorazko gauzarik moldau, zalamala galanta baiño.* Ik. **zarrámarra.**

**ZALAPARTÁRA, zalapartaría** (b). izena. Mugimendu azkar eta bortitza. • Movimiento rápido y

brusco. *Oillua eskutan artu giñuanian demaseko zalapartarak jote zittuan.* **zalapartáraka** (b). adberbioa. Zalapartadak egiten. *Kokoteraiño nago umiekin; goiz guztia zarataka, saltoka ta zalapartaraka ibilli die.*

**ZÁLDI, zaldíxa** (b). izena. Caballo. ZALDI eta KABALLO, bata zein bestea erabiltzen dira arra izendatzeko. Donatok susmoa du antzina irendutakoari KABALLO eta gabekoari ZALDI deitzen ote zitaion, baina susmoa da bakarrik. Ik. **bíor, móxal**.

**ZALDI-GANÁU, zaldi-ganáua** (d). izena. Especie caballar. Sin. **zaldi-bior**. Ik. **ardi-gánau, asto-ganáu, kaballeríxa**.

**ZALDIBIDE, zaldibidia** izena. "Camino para caballos; camino de herradura." (SB Eibetno).

**ZALDI-BIOR, zaldi-biórra** (c). Especie caballar.  
*Gorbea aldian zaldi-biorra ikaragarri jabik.* Sin. **zaldi-ganáu**.

**ZALDIBÚRDI, zaldiburdíxa** (d). izena. Mendian trongotan egiteko gurdi berezia. Idiekin erabiltzen zen. *Zaldiburdíxa. -Zaldiekin erabiltzen zen? -Ez, irixekin. Baiña berak zeukan gaiñian kargatzeko trabesaiño aundi bat jiratorixua, tronguak luzian eruateko. Zaldiburdíxa; berak buelta eitte juan kurbetan da. Don. Zaldiek erabiltzen dutenei **karro** edo **zaldikarro**, orain behintzat.* Ik. **tríbuli, zálpurdi**.

**ZALDIZKO1. zaldizko, zaldizkua** (d). Zalduna. Ik. **oiñézko**. **2. zaldizko, zaldizkua** (c). izena. Kartetako zaldia. • El caballo de la baraja. *Txanka ta zaldizkua ta erregia. Kaballua be esate jakuan, baiña zaldizkua lenguak. Klem.* ZALDI soilik ere bai. **3. zaldizko, zaldizkuak** (d). izena. Haizeak trabeska jotzen duelarik egiten duen euri-zaparrada. *Orrek die zaldizkuak! Eurixa zaldizkotan diardu. (Lar Antz). Eurixa holan eitten ebanian,*

**ZÁLDUN, zaldúna** (d). izena. Jauna, jauntxoa. • Caballero. *Zalduna, lenaoko jauntxuak. Zaldi gaiñian ibiltze zittuan itxuria ta, zalduna. Kategorixako personiai ero esate jakuan. Klem.* Lehenagoko zaharrei entzuten omen zitzaien hitza.

**ZÁLE1. zale, zalía** (b). adjektiboa. Gustatzen zaiona, ohitura duena. • Propenso, aficionado, -a. *Gure Patxi zapatak sukaldian lagatzen zalia da./ Zu lanera berandu joaten zalia za./ Udabarrixa zalia da eurixa eitten. -TzEN zalia.* **2. -zale, -zalía** atzizkia. Zaletasuna duena. *Neskazale demasa da./ Beti izan da ardauzalia.*

**ZALETÁSUN, zaletasúna** (b). izena. Afición. *Eztauka estudiorako zaletasunik. Afiziño gehiago entzuten da.* Ik. **afiziño**.

**ZALÉTU** (b). da-du aditza. Aficionar(se). *Asi zan tontamentian txistua joten da ziero zaletu zan.*

**ZÁLGAIndarra1. zalga, zalgía** (c). izena. . vicia... sp.. Gari artean hazten den belar txarra. Gariari kiribildu eta igo egiten dio, berau itoaz. Idarraren antzeko lekak izaten ditu. *Zalgia parrau eitten da, katiau eitten da dana. Garixa lotu eitten dau. Don.* **2. zalga** Ik. **sálga**.

**ZÁLPURDI, zálpurdixa** (d). izena. Zaldi-gurdia. • Coche de caballos. Ik. **tríbuli**.

**ZÁLTAI, záltaixa** (a). izena. ZALTEI. Ikuilua. • Cuadra. *Ama zaltaixan dabill ganau-gobernuak eitten.* Etim.: zaldi+ari, agian (Ik. atari), edo zaldi+tegi. Sin. korta (Ub.), ittoi (Oñ., Lein.). Ik. **átai, kórta**.

**ZÁMA, zamía** (d). izena. Gurdiari edo lerari atzean lotu ohi zitzaizkion arbola adarrak, lehenaz gain, haren gainean belarra, garoa edo edozer garraiatu ahal izateko. • Especie de narria improvisada que se hace de ramas de árbol y se ata al carro o a la narria para poder acarrear más. *Lerlai guk ipintzen gontsan, atzeko ezpatan sartu adar batzuk, katiâu, eta gero bedarra geixao ekartzeko. Aura zamia. Klem.* Garraiatzeaz gain, aldapa handietan gurdia frenatzea da zamaren beste eginkizuna.

**ZÁMAR1. zamar, zamárria** (c). izena. Errementariak erabiltzen zuten larruzko mantala. *Lenenguan bai zamarra, baiña gero bonbatxuak erabiltzen giñuzen. Eus.* **2. zamar** lk. **sámar**.

**ZAMAU1. zamau, zamaua** izena. (Eibar) Mantel. *Platerak ipiñi baiño len, jarrizu zamaua. (AAG Eibes).* **2. zamau, zamaua** izena. (Eibar) Sukaldeko esku-trapua. *Sikatizuz eskuok zamauakin. (AAG Eibes)*

**ZAN, zána1. zan, zana** (a). izena. Zaina. • Vena. *Zanak ebai dittu.* **2. zan, zana** izena. (Eibar) "Punzón muy fino, nervio." (SB <i>Eibetno).</i>

**zan-okor, zan-okerra** izena. (Eibar) "Damaskinatuan, sonbriauan erabiltzen dan puntzoia, arku formako punta dabena." (SB <i>Eibetno)</i> **zan-zuzen, zan-zuzena** izena. (Eibar) "Trazador recto. • Damaskinatuan, sonbriauan, formak emoteko erabiltzen dan puntzoia, punta zuzena dabena." (SB <i>Eibetno). </i> **3. zan, zana** izena. "Vena de agua, beta subterránea." (SB <i>Eibetno).</i>

**ZAN BÉDAR, zan bedárria** (d). izena. . plantago lanceolata. Llantén mayor, llantén menor. Oso landare nabarmena bere kirten mehe tentarekin, gainean lore-burutxo luzexka bat duela. Izena hostoak halako zain batzuk ageri dituelako ematen zaio, ziurrenik. Haundituak bajatzeko eta zauriak ixteko erabiltzen da, besteak beste. lk. **aitóna bédar**.

**ZÁNA** (b). posposizioa. Zena. Difuntua, senitasun hitzen edo izen propioen atzean jarrita. • El difunto... *Gure aitta-zana oso umore onekua zan./ Periko-zanak konpondu jua teillatua. Ama-zana, aittajuna-zana, Manuel-zana... Beti mugatu sing.* lk. **difuntu, -o, -a**.

**ZANAORIXA** lk. **azénaixa**.

**ZÁNBRA, zánbria** (d). izena. ZANBRÁDA, ZANBRARA (ARAM.). Jataldi handia. • Comilona. *Atzo ein gi&ntilde;uan zanbria. Buzkantz-jana geunkan pentsauta, eta azkenian buzkantzak eta ostientzekuak./ Urtero izate jauu zanbria Erregen bezperan.* lk. **zanbríau**.

**ZANBRÍAU** (d). du aditza. (lagunartekoa.) Aho betean jan. • Comer a boca llena. *Ixa baba-lapiko osua zanbríau jua.* lk. **zánbra**.

**ZÁNBR01. zanbro, zanbrúa** (d). izena. Arbiari sortzen zaion gaitza. • Enfermedad del nabo debido a la sequía. *Arbi-buru askok zanbrua dauka.* **2. zanbro, zanbruak** izena. (Eibar) "Ubeldurak, beltzuneak. *Irizillakin zanbruak atara zetsazen bizkarrian.*

**ZANBRÓTU** (d). da aditza. Arbiak zanbro gaitza harrapatu.

**ZÁNGA, zángia** (a). izena. Zanja. *Zangara jausi zan bizikleta ta guzti.*

**ZANGA-ZANGA** lk. **danga-dánga**.

**ZAN GÓRRI, zan gorríxa** (d). izena. . erodium cicutarium. Alfilerillo de pastor. (SB Eibetno).

**ZÁNKABE, zánkabia** (c). izena. ZANKÁLOSTE, -IA. Belaunaren azpialdea. • Corva. *Zankabietako miñez nabill aspalditxuan.*

**ZANKÁRROI, zankarróia** (c). izena. Salda egiteko haragia. • Zancarrón. *Zankarroia ba saldia eitteko aragixa. Klem.*

**ZÁNKO1. zánko, zánkua** (d). izena. Maminune lodia; iztarretakoak eta. *Bernetan be zera esaten jakok: &ldquo; Zankumamiñ edo bernamamiñ deitu die Don.k pantorrilei.* **2. zánko, zánkua(k)** (b). izena. Egurrezko hanka-luzagarria. • Zanco. *Asko ibiltzen giñan zankuekin jolasian.* Sin. kako. (Lar Antz). Sin. **kako, -u.**

**ZANKÓSENDU, zankósendua** (d). adjektiboa. Hanka lodiak dituena. Don. Sin. **ankásendo.**

**ZANKUMAMIÑ, zankumamiña** (d). izena. Pantorrilla. Don. Sin. **bernamámiñ.** Ik. **zánko.**

**ZANKÚRUTZ, zankurútza** (d). izena. Ardiaren gorputz partea. Ez dakigu zein *Okotza, okozpia, agiñak, belarrixak, zankurutza... Luis*

**ZANPÁTORTA1. zanpátorta, zanpátortia** (d). adjektiboa. Aurpegi borobil-borobilekoa. • Se dice de personas con cara de torta; zampatortas. *Musu biribill...; zera danian, maluz-malutza danian, zanpatortia. Talo-mosua be esan izan dok eta. Klem./ Kamarera barrixa, aura da zanpatortia.* Baita: Orrek dauka zanpatorta arpegixa. Ik. **talo-arpegíxa éuki.** **2. zanpatorta, zanpatortia** adjektiboa. "Ezeri garrantzirik ematen ez eta lasai bizi den pertsona." (Lar <i>Antz</i>)

**ZANTIRÁTU, zantiratúa** (b). izena. Esguince, distensión violenta de un músculo. *Ibilli ezindda nago ezkerreko ankan zantiratua daukat eta.* Ik. **biurrítu, erásan.**

**ZÁNTSU1. zantsu, zantsúa** (c). adjektiboa. Zain asko duena. Haragiaz, batik bat. • Venoso. *Gaur ekarri dozun aragixa oso zantsua da.* **2. zantsu, zantsúa** (c). adjektiboa. Musculoso, -a, fibroso, -a, fuerte. *Zantsua, inddartsua ero zera baldin baok ola nerbixo askokua ta, &ldquo;ño, gizona zantsua&rdquo;.* Don.

**ZANTZU, zantzua** izena. (Eibar) "Alaitasun oihua, giza irrintzia. *Zantzuak eta aujixak entzuten ziran alde guztietan.*

**ZAPABÚRU, zapaburúa** (a). izena. Renacuajo. *Zapaburutan eittia, umetako jolasa.*

**ZÁPAL1. zapal, zapála** (b). adjektiboa. Plano, aplanado. *Ugarixuak eta zapuak zapalak izaten die./ Karrerako kotxe zapal batekin agertu da.* **2. zapal, zapála** (c). adjektiboa. Sakontasun gutxiko plateraz esan ohi da. *Platerak, batzuk sakonak eta beste batzuk azalak ero zapalak izaten die.* Sin. **azal.** Ant. **sakon.**

**ZAPÁLDU** (a). du aditza. Pisar, aplastar.

**ZAPÁLUNA, -E, zapálunia** (c). izena. Inguruko nibela baino beherago dagoen unea. • Zona más baja que el alrededor. *Alde bittatik gora dagonian da erdixan zapalunia. Zelai baten be bai zapalunia, ero erozein lekutan.* Klem. Ik. **zápal.**

**ZAPANÁRRU, zapanarrúa** (c). izena. ( adierazkorra.) ZAPONARRU. Eguzkitan edo haizetan luzaro egoteagatik zimel eta beltz jartzen den gorputzeko azalari esaten zaio. • Dícese de la piel muy morena, reseca y curtida. Lit.: "piel de sapo". *Soldauxkatik zapanarrua eindda etorri nitzuan./ Agromango langilliak zapanarrua eindda eukitzen dabe.* ZAPANARRUA EINDDA, batik bat.

**ZAPARRÁRA, zaparraría** (a). izena. ZAPARRADA. Chaparrón. *Kaletik etxerakuan zaparrariak arrapau gaittu.*

**ZAPASALTO EGIN** "Brincar." (SB <i>Eibetno.</i>) Ik. **aketixen, ipúrsaltoka.**

**ZAPÁTA1. zapata, zapatía** (a). izena. Zapato. *Andrioi e, orrek takoi... orrek zapata atze-libriak.* ZAPATA ATZE-LIBRIAK dio JJp.k emakume-zapata motaren batez, zapata takoidunez ziurrenik. *Andrioi e, orrek takoi..., orrek zapata atze-libriak.***2. zapata, zapatía** (d). izena. Dragan (gurdiaren freno) gurpilaren kontra jotzen duen pieza. • La pieza que roza con la rueda del carro para frenarla.**3. zapata, zapatía** (d). izena. Etxearen horma gainetan jartzen diren egurrak. • Zapata. *Zapatia juaten da orma gaiñian. Sebas. Zapatak paretan gaiñian ipintzen dianak, lau, kuartoiak ipintzeko. Benito.* **4. zapata, zapatía** (d). izena. Machón. Ik. **matxóe, -i.** **5. zapata, zapatak** (d). izena. Abereen azazkalak. Ik. **pélu, -o.**

**ZAPÁTAKINTOKA** (d). adberbioa. Antzinako haurren jolasa. Bat painoloaz begiak estalita pareta kontran jartzen zen. Besteak neurri batzuen barruan kokatzen ziren, geldi. <i>Zapatakínto</i> esaten zuen katiguak. <i>Estamoskító!</i> ("estamos quieto") erantzuten zuten besteek. Bat harrapatzen zuenean, harrapatutakoa aintxintxika joan behar bazterrera, bidean egurra ematen zioten eta. Gure aita-zanari jaso.

**ZAPATA-LOKARRI** Ik. **lokárri.**

**ZAPATÁRI, zapataríxa** (d). izena. ZAPATERO. Zapatero. Esan ZAPATERO ia beti. Dena dela, hor dago Amillagan &mdash;(hor zegoen, hobeto esanda&mdash;) ZAPATARIKUA, etxea eta taberna, orain gasolindegia dagoen tokian.**Aldiz aldiz, zapatarixa zaldiz** esaera. "Bizitzan gora-beherak izaten dira; zapataria ere askotan oinez, baina beste batzuetan zaldiz ibiltzen da." (Lar <i>Antz</i>).

**ZAPÁTA-ZÁRKA** (d). adberbioa. ZAPATILLA-ZARKA, ABARKETA-ZARKA. Antzinako gazteen jolasa, auzolan ostean eta egiten zena. • Antigua versión del juego de la zapatilla. ZAPATA ZARKA IBILLI, batik bat. Ik. **erlé-bátze, érronda.**

**ZAPATÉRO1. zapatero, zapaterúa** (a). izena. Zapatero. Ik. **zapatári.** **2. zapatero, zapaterúa** (b). izena. Errekako ur gainean ibiltzen den zomorro hankaluzea. • Zapatero.**3. zapatéro geldítu** (b). esapidea. Kartetan, pasada bakar bat ere egin gabe geratu, edota punturik gabe. • En los naipes, no hacer ninguna baza o ningún tanto. *Oingo pasaran uste dot zapatero geldittu biotela.*

**ZAPATILLA-ZARKA** Ik. **zapáta-zárka.**

**ZÁPATU, zápatua** (a). izena. Sábado. Ik. **Erremu zapatu. zapatu ingles, zapatu inglesa** (d). izena. Orain dela gutxirarte lan egiten zen zapatu arratsaldeetan ere. Ingelesak izan ziren lehenak jai hartzen, eta hemen 1960 aldera lortu zenean, hala deitzen zitzaion.

"Sábado inglesa" sarriago entzuten zen.

## ZAPATZ lk. zepatz.

**ZAPÉDAR, zapedárra** (d). izena. . stellaria media. Pamplina. Batez ere sorotan hazten den belar txarra. Lur asko jaten duen sustrai zabal-zabala du. Sin. **bedar nárras, miárma bédar**.

**ZÁPI1. zapi, zapíxa** (c). izena. Trapo, pañuelo, lienzo. • &mdash;Zapi berbia erabili izan dozue? &mdash;Bai, lengua asko ala be, zapixa. Trapuai, sukaldekuai, esku-zapixa ta; buruko pañolua ero..., baiña zapixa be bai. Ero zapi bat ortarako-ero, ontarako-ero. &mdash;Klem./ &mdash;Gero an, ixipulia ta pasatzeko egoten zien zapi batzuk esegitta. Sot. Hitz galdu samartua da. Ordez **trapu** entzuten da eskutakoa denean eta **pañolo** bestelakoa denean. lk. **burúko zápi, eskú-zápi**. **2.**

**zapi, zapixak** izena. (Eibar) "Colada; total de prendas y trapos: sábanas, camisas, ropas de cama... (SB Eibetno). Erreka baztarrian, harri bat lagun zala, josten ziran zapixak. Eta gero bedartzan ipini eguzkixak zurittu zeixan. Ubitxa inguruko zelaixak zapiz jositta egoten zittuan, eguzkixak urtetzen zeban bakotxian. Politta izaten zuan." (SB Eibetno). **3. zapi, zapíxa** (d). izena. Pañal antíguo. Zapixa iru puntako tela puxketa bat, aurretik eta atzetik lotuta, gerrixan lotuta; aura ipintzen jako ba albotara zikindu ezteñ. Zapixan gaiñetik paxia gerrixan; bueltan-bueltan paxia. Paxian gaiñetik mantia. Mantetan batzen zan. Don.

**ZAPÍ-BANASTA, zapí-banastia** (d). izena. Lixibako arropa erabiltzeko banasta. Beste bat, etxetan darian egoten zuan lenao, zapi-banastia. Aura lixibia eindakuan erropia erabiltzeko. Bee zabalakin, kasi gora estutxuao zala. Don. lk. **bánasta**.

**ZAPÍNDU1. zapinddu** (d). du aditza. Astindu, jo; zibita edo makila batez, batik bat. Zibitta batekin zapinddu zeban neskatillia. **2. zapinddu, zapinddua** (c). izena. Zurra, azotaina. Aittajunak ikusten badau ze ein ddozun ikusiko zu zelako zapinddua artukozun.

**ZÁPLA1. zapla** (b). Belarrondokoaren onom. Maixua etorri tta zapla!, kriston belarrondokua. **zípli eta zápla** (c). adberbioa. Belarrondoka. Umiekin zipli eta zapla ibiltzen da. **zípli-zápla** (b). onomatopeia. Bi belarrondoko, bata alde batean eta bestea bestean edo. Bi belarrondoko emun zoztan zipli-zapla. **2. zapla** (b). Kolpera zerbait esan edo erakustearen onom. • Onom. del decir o mostrar algo de repente. Ein zotsan faltsukerixia zapla!, arpegira bota zotsan danen aurrian.

**ZAPLÁRA, zaplaría** (b). izena. Belarrondokoa. lk. **zaplátéko**.

**ZAPLATÉKO, zaplatekúa** (b). izena. ZAPLASTEKO. Belarrondokoa. • Bofetón. Ixilik ezpazare zaplateko bat emungotsut. lk. **belárrezkiñako, belárrondoko, matrailléko, zaplára**.

**ZAPO1. zapo, zapúa** (b). izena. Sapo. Oiñ ezta ikusten len beste zapo. **Emun da kendu, zapuak ankia kendu** esaera. "Norbaiti gauza bat eman eta gero kendu egin (nahi) bazaio, hartu duenak esaera hori esaten du, emandakoa ezin dela kendu adieraziz. Normalean umeen artean esaten da." (Lar <i>Antz</i>)**mutiko zapua!** esapidea. MUTIKO ZAPUA esan ohi da "mutiko demoniua" zentzuan. Erredios, etxostak pa zigarruak arrapau mutiko zapuak... Mutiko-rekin bakarrik entzun dut. Ben.k mutiko batek apaizari "zapo amorratua" deitu ziola diosku antzinako ipuin batean. Dotriñaik e, preguntau ta ez jakiñ, da. **"zapua euki** esapidea. Ikusiezina, gorrota euki. Orrek egundoko zapua jotsek alkarri. **zapue zirixen baiño igerraue** (c). esapidea. (Leintz) Oso igarra. Lehenago zapoa zirian sartu eta ortuan lehortzen uzten omen zuten, auskalo zergatik edo zertarako. **2. zapo!** (b). interjekzioa. Bale-baleka jokoan, "pagatzen" den lekura joan eta "egiteko" esan ohi dena. • Formula con la que "se hace" en el juego del escondite. Peru, zapo! lk.



**balé-báleka.**

**ZAPÓ-KÍPULA, zapó-kípulia** (d). izena. . alium ursinum. Ajo de oso. Zuztar patataduna du eta lora zuria. Sin. *suba bedar*. Sin. **kípula bédar, zapo-bédar**.

**ZAPO-BÉDAR, zapo-bedarra** (d). izena. . Ajo de oso. Sin. **zapó-kípula**.

**ZAPO-BERBETA** Sin. **zapó-érdera**.

**ZAPÓ-ÉRDERA ZAPA-ERDERA.1. zapó-érdera, zapó-érderia** (c). izena. Neska-mutikoek erabili ohi zuten kodigo sekretua, silaba bakoitzaren atzean •pa, -pe, -pi... jarritz, adibidez: <em>Txa-pa, kur-pu, ra-pa = </em> txakurra. *Ingurukon batek ez entenditzia nai gi&ntilde;uanian zapo-erderan eitte gi&ntilde;uan*. Sin. zapo-berbeta.**2. zapó-erdera, zapó-erderia** (d). izena. Gaizki hitz egindako erdera. • Castellano mal hablado. *Zapo-erderia eitten dau orrek. Klem*.

**ZAPO-KÁNTU, zapo-kantua(k)** izena. Canto de sapo. *Zapo-kantuk etxostek lo eitten laga*. Pluralean, batik bat.

**ZAPOKERÍXA, zapokerixía** (d). izena. Ruindad, vileza. *Ori zapokerixa ori eztostak neri eingo orraittio*.

**ZAPONARRU** lk. **zapanárru**.

**ZAPO-PERRETXIKO, zapo-perretxikua** (c). izena. Jateko balio ez duen hainbat perretxiko motari ematen zaion izena.

**ZAPÓSALTOKA** Txorromorroka-ren antzeko jolas bat ote zen uste du Don.k. "Primero saltoka"ren beste izen bat ote?

**ZAPOTSU, zapotsua** adjektiboa. (Eibar) Rencoroso. *Urtetan bere gaizkiñak aztutzen ez dittuan zapotsua dozu a gizona. (AAG Eibes)*.

**ZÁPOTZ ZAPOTX, ZAPUTS.1. zapótz, zapótza** (d). adjektiboa. Normala baino txikiagoa dena. Landareez, batik bat, baina baita beste edozertaz ere. • Lo que es más pequeño de lo normal; sobre todo hablando de plantas, pero también de personas y animales. Achaparrado, -a, pequeñajo, -a. *Normala baiño txikixaua danian; landara bat ero personia be bai. Urte askuan gutxi azittakua ero, zapotza. Klem./ Klase iguala izen arren arbola batzuk orri aundixaua izeten dabe ta beste batzuk zapotzaua./ Hori katuori zaputsa geratu da. (SB Eibetno)*. lk. **zapótza. 2. zaputs, zaputsa** adjektiboa. (Eibar) Peludo, abultado. De mucho pelo pero de poca carne; sobre todo animales como el conejo, cordero...

**ZAPÓZTA, zapoztía** (d). adjektiboa. Zapo kolorekoa edo itxurakoa. Larru beltza eta zimela, ijito itxura, dutenengatik entzun izan dugu. • Se dice de los que tienen aspecto agitanado. *Mutiko flako zapozta bat zuan ire kotxian lapurretan zebillena. Uste dugu zapozta hitza zapotz zentzuan ere (txikia, behar baino gutxiago hazi dena) esaten dela*.

**ZAPOZTU** lk. **zapuztu**.

**ZAPROTZ, zaprotza** (d). adjektiboa. Zakarra, baldarra.

la galdua.

## ZAPUTS Ik. zápotz.

**ZAPUTZ, zaputza** izena. "Pescuezo. • Animalixa batzuen lepo ingurua, atzekaldia gehixenbat. *Jaixo-barrixak diranian, katakumiak zaputzetik oratzen jittuk amiak, alde batetik bestera eruateko.*" (SB Eibetno) ZAPUTZETIK ORATU edo ELDU, batik bat.

**ZAPUZTU ZAPOZTU.1. zapuztu** (c). du aditza. Txoriak bere kabiko umeak edo arrautzak abandonatu. • Abandonar el pájaro en el nido sus huevos o crías. *Txikittan sarri entzuten giñuan txori apixak etziela ikutu biar, bestela amiak zapuztu eingo zittuala ta.* Batzuetan abandonatu beharrean hil egiten ditu amek; hau ere zapuztea da. Zera diosku Klementak: Txorixana, zapoztu eitte zittuala umiak, ba ori esate zeben e, amiak kaixola baten... apixan ekarritta gobernatzan diardualakuan e, benenua ero, zapoztu itte zittuala, perrejilla emonda ero eztakit zer be. **2. zapuztu** (d). da aditza. Elkarrekin haserretu. *Uste dot anai-arrebok aspaldixan zapuztuta dabitzeela.* **3. zapuztu** (d). da aditza. Zapotz bihurtu. Landare edo animalia bat eskastu, kaxkartu. • Desmejorar un animal o planta. *Zapoztuta... ola kaxkartu itten danian gauzia: zapoztu ein ddok. Landare bat ero, txita bat ero makaldu, zapuztu.*

**ZAR1. zar, zárra** (a). adjektiboa. Zaharra. • Viejo, -a.

**Zaarrak barri arrabixaen eraingarri** esaera. Sin. **Zárrak bárri, arrabixagarri. Zárrak bárri, arrabixagarri** (d). esaera. Ze barri? galderari hala erantzun ohi zaio, gauzak betiko antzera jarraitzen dutela adierazi nahi denean. Izagirrek zera dakar: "*Zaarrak barri, arrabixaen eraingarri: las cosas viejas presentadas como nuevas producen náuseas (rabia). Es una variante del 'Nihil novum sub sole'.*" **Zarrei bixkor ibiltzeko eta umiei geldik egoteko esatia berdiña ei da** (c). esaera. **2.**

**zarra** (c). posposizioa. Aditz partizipioen ondoren jarrita, eta ezezko esaldiekin bakarrik, "ez da denbora asko". • No hace mucho que. *Eztaukat goseik, oinddio enaiz jan zarra ta./ Enaiz Donostian izan zarra./ Julien ezta oinddio lanetik etorri zarra./ Etzan ezkondu zarra il zanian.* Ik. **barri. 3. -zarra** (c). atzizkia. -tzarra, handia, itzela. *Egundoko subazarrak urten zeban arripetik./ Sekulako kamioizarra jo giñuan.* Izenari eransten zaion atzizkia.

**ZARA, zaria** izena. (Eibar) Zumezko saski handia.

**ZARÁGI, zaragíxa** (b). izena. Zahagia. • Odre, pellejo. *Len ardaua zaragittan erabiltzen zan.*

**ZARÁTA, zaratía** (a). izena. Ruido, grito. Oso generikoa eta erabilia. **zarata txarra euki** (c). esapidea. Zurrumurru txarrak ibili. *Fabrika orrek zarata txarra dauka (gaizki ote doan edo).* **zaratak etára** (b). aditza. Hacer ruido, gritar. *Mesedez eta faborez, ezizu zarataik etara.*

**ZARÁTAKA** (a). adberbioa. Gritando, chillando. *Etxera aillegau orduko ama zarataka asi jat./ Zarataka dabitze umiak.*

**ZARATÁTSU, zaratatsúa** (b). adjektiboa. Zarata asko ateratzen duen pertsona edo gauza. • Ruidoso, -a. *Gure frigorifikua oso zaratatsua da./ Aura dan zaratatsuakin laster topaukok.* Ik. **zaratóso.**

**ZARATÓSO, zaratósúa** (c). adjektiboa. ( adierazkorra.) Zaratatsua. Pertsonaz bakarrik. • Ruidoso, -a, bulloso, -a; se dice solamente de las personas. *Atzo ire lagun zaratoso batekin juntau nitzuan.*

Ik. **zaratátsu**.

**ZÁRBA**, **zarbía** izena. (Arrasate) Zerba. • Acelga. Bergaran "azelga" esaten bada ere, baserritarrek ezagutzen dute hitza, batik bat Arrasateko azokara joan izan direnak. "Ortuko txuletak" esaten zaie albardatutako zarba-kirtenei. Sin. **azélgá**.

**ZARDÁDE**, **zardadía** (d). izena. Zahartasuna. *Edadía bakarrik ez, zardadia daukagu guk./ Zardadez il zuan.* ZARDADEZ IL: morir de viejo. **zardadez il: morir de viejo** ZARDADEZ IL: morir de viejo.

**ZARDAI**, **zardaixa** "Gaztainak botatzeko makila luzia." (SB Eibetno). Ik. **karakote, aga**.

**ZARDEN** Ik. **zérden**.

**ZAREGIN**, **zaregiña** izena. (Eibar) "Zumitza lantzen dabena, eta gehixenbat zariak eta otarrak egitten dittuana. *Zesto batzuk eitten zittuen zaregiñak, baiña ez juen nahi izaten urritxa, txarra dok zumitza eitteko-eta.*" (SB Eibetno). Sin. **otzaragin, zestéro**.

**ZÁRPA1. zarpa, zárpia, -ak** (c). izena. Zarpa, garras. **2. zárpa, zárpak** (c). izena. Esku handi eta heltzerakoan min ematen dutenak. • Zarpas. *Jode, orrek jauzkak zarpak; orrek ikutzen bosk azurretaraiño sartukosk.* Horrelako zenbaitek "Zarpas" ezizena du.

**ZAR PASAU**, **zar pasaue (Aram.)**. izena. (Aramaio) Pertsona oso zaharra.

**ZARPIAU** Ik. **sarpíau**.

**ZARPOTZU**, **zarpotzúa** (d). izena. Antzina korta inguruan egon ohi zen txiza-putzua.

**ZARRÁMARRA1. zarrámarra, zarrámarría** (c). izena. Hondakinak, zakarrak. • Sociedad acarreada por el río, residuos, etc. *Soua goldatzen asi aurretik, errekiak ekarrittako zarramarrak kendu ta bedarra ebai biako da.* Pluralean gehiago. Basoa zikintzen duen sasi eta albitzari ere bai. Len garbi zeuan gure basua, baiña oiñ zarramarraz beteta dago. **2. zarramarra** Ik. **arrámarra**.

**ZARRÁPARRA1. zarráparra, zarráparría** (c). izena. Nahaste borrastea, zurrumurru nahasia... Garbiak ez diren gauza edo egoerez esana. • Dícese de situaciones confusas. *Santa Luziako ferixan zaldixa, astua, tratoria, ijittua ta zarraparría ugari./ Elizatik etxerakuan andrak auzo guztia astintzen dabe: alakok nobixuai laga ete dotsan, bestia* Azkenengo esaldi hau SASIXAN ZARRAPARRIA esanez bukatzen ere entzun dut. Zenbait saltserori "zarraparras" deitu izan zaio. / *aiz i zarraparras.* **2. zarraparra** Ik. **zarrámarra**.

**ZARRAPASTRÓSO, -A, zarrapastrosúa, -ia**. (c). adjektiboa. Pertsona zikina, gaizki jantzia, arlotea. • Zarrapastroso. -a. *Azkenian ainbeste kanbixo eiñ ondoren zeñekin ezkonduko eta zarrapastroso arekiñ.*

**ZARRÁRA**, **zarraría** (b). izena. Zirrara. • Estremecimiento, impresión interior. *Ildakua estadu aretan ikusi nebanian demaseko zarraría ein jatan./ Erroman euskal kantak entzutiak egundoko zarraría eitten zostan.* Ik. **arrára**.

**ZARRASKARA**, **zarraskaria** izena. (Antzuola) "Dentera. Janari garratz edo fruta berde bat jaten denean ahoan sentitzen dena. *Sagar berde bat jan dot pai eta auan daukat zarraskaria.*". (Lar Antz)

**ZARRASTÁRA1**. **zarrastara**, **zarrastaría** (c). izena. Zaparrada laburra. *Euri-zarrastaratxo bat ederto etorriko litzakixok letxuga-landariai.* **2. zarrastara**, **zarrastaría** (c). izena. Txiza-arrastada. Ik. **txixa-arrára**.

**ZARRA-ZARRA** (b). Ik. **sarra-sarra**.

**ZARRÉMON**, **zarremóna** (d). adjektiboa. Zahar emona, zahar itxura duena. • Que aparenta más años de los que tiene. *Orrek oinddio irurogei urte be eztauzka, beti izan da zarremona baiña./ Anai-arreba guztiak die zarremonak.* Mugatuan ia beti. Ant. **gazteémon**.

**ZARTA-ZÁRTA** (c). onomatopeia. Erraz eta ugari hizketan, egiak nahiz gezurrak (batik bat), arrazoiak nahiz zentzugabekeriak, esaten. • Voz onomatopeica que indica abundancia y facilidad diciendo verdades, mentiras, razones, etc. *Gizurrak esateittu arek zarta-zarta. Klem./ Arrazoiak zarta-zarta botaittu.* Inoiz entzun daiteke beste testuinguru batzuetan ere: Milla pezetakuak zarta-zarta etara jittuan mai gai&ntilde;era. Testuinguru honetan BLASTA-BLASTA da normalagoa.

**ZARTÁIÑ**, **zartáiña** (a). izena. Sartén.

**Zartaiñak lapikuai: alde ortik beltz ori** esaera. (Antzuola) (Lar <i>Antz.</i>

**zartaiñ ipurdixa baiño beltzaua izan** Hala esan ohi da gauza oso beltzez, pertsoez, batik bat. *Zartaiñ-ipurdixa baiño beltzaua dan kubana batekin ezkondu da.*

**ZARTÁIÑ-IPÚRDI**, **zartáiñ-ipúrdixa** (c). izena. . daucus carota. Zanahoria silvestre. **Millu edo anis bedar** deitzen zaion landarearen antzekoa da, *unbeliferen familiakoa, baina ez du haren usain berezia. Ona omen da odola garbitzeko, libratzeko eta urdailerako. Baita erreuma dutenentzat ere.* Sin. **san juán lora**.

**ZARTAIÑÉKO**, **zartaiñekúa** (b). izena. Zartaginean prestatutako janaria. *Gabetan beti zartaiñekua afaltzen dou.*

**ZARTÁKOR**, **zartákorra** (d). adjektiboa. Erraz zartatzen dena. • Lo que se resquebraja fácilmente. *Gaztai klase batzuk oso zartakorrak izateittuk./ Keixia zartakorra izeten da. Zartakorra esaten jako brintzatu eitten dalako sikuan. Don.* Sin. **pitzákor**. Ik. **zartíau**.

**ZARTÁRA1**. **zartára**, **zartaría** (a). izena. Zartada. • Golpe. *Zartara edarra artu dau arbolatik jausitta.* Sin. **zartatéko**. **zartáarak bota** (c). esapidea. Disparateak, gauza sinesgaitzak esan. *Arek pe, muturra puxkat berotutakuan zartara galantak botatze jittuk.* **zartaría euki** (c). esapidea. ( eufemismoa.) Zoro samartuta egon. *Orrek zartara demasa jaukak.* Ik. **takaría euki**, **arrikara**, **ikutu**. **2. zartara**, **zartaria** izena. (Eibar) Grieta, quebradura.

**ZARTATÉKO**, **zartatekúa** (b). izena. Zartada. • Golpe. *Nik artu najuan zartatekua.* Sin. **zartára**.

**ZÁRT EIÑ** (b). du aditza. Gauza gogor bat brintzatu edo hautsi. • Quebrarse o resquebrajarse objetos duros. *Bonbian ondiakin kristal guztiak zart ein zeбен./ Azak eta be burua aundi einddakuan zart eitte juek sarrittan. Klem.* **zart eindda egon** (c). esapidea. Zoratu samartuta egon.

**ZARTENÁZO**, **zartenazúa** (d). izena. ( adierazkorra.) Sartenazo, golpe. Lo hemos oído decir sobre

todo de las descarga eléctricas. *Entxufia ipintzen nebillela zartenazo edarra artu najuan./ Azelakotxe zartenazua artu zeban buruakin ate-markua jota.*

**ZARTÍAU** (b). da aditza. ZARTAU. Zartatu. • Resquebrajarse, agrietarse, cascarse. *Mutikotan, neguan esku-gaiñ guztiak zartiauta eukitzen giñuzen./ Etxe zar aretako paretak danak zartiauta dare./ Pinturia zartauta dauka zure kotxiak.*

**ZÁRTZARO, zártzarua** (b). izena. ZAARTZARO. Zahartzaroa. • Vejez. *Zuek eztakizue zartzarua zelako gogorra dan. Zartzarua, bigarren umealdixa esaera. (Lar Antz).*

**zartzaroko papel, zartzaroko papelak** izena. Los papeles de la jubilación.

**zártzarua kobrau** (b). esapidea. Cobrar la jubilación. *Zartzarua kobratzen asitta dago.*

**ZAST!** (b). onomatopeia. ZASTA. Gauza zorrotz bat sartzearen onomatopeia. • Onom. de meter un objeto afilado. *Sillan jartziaz bat, zast, orratza sartu jata ipurdittik. Ik. txasta eiñ. zasta-zasta1.*

**zasta-zasta** (c). onomatopeia. Gauza zorrotz bat sartzearen onomatopeia. **2. zasta-zasta** (c). onomatopeia. (lagunartekoa.) Larrujotzearen onomatopeia. *Kotxe barruan jo jotsan zasta-zasta.*

**zísti eta zásta** (c). adberbioa. Akulua edo punta zorrotzeko zerbeit behin eta berriro sartzen. *Moskito demoniuak dabitz zisti eta zasta.*

**ZASTAL1. zastal, zastala** (d). adjektiboa. Epela, ustela. *Egoaize zastala dago gaur. 2. zastal (d). adjektiboa. Ganorabakoa. *Gizon zastalagorik eztok izango munduan.**

**ZASTÁRA ZASTADA, ZISTADA, ZISTARA.1. zastára, zastaría** (b). izena. Zitztada. • Punzada, dolor debido a un objeto punzante. *Guraiza puntiakin zastara edarra artu dot. 2. zastara, zastaría*

(b). izena. Min zorrotz eta laburra. • Punzada de dolor. *Noizian beñ zastarak sentitzeittut, emen estomago onduan.*

**ZASTÍAU1. zastíau** (c). du aditza. Akulua, sarda edo beste objektu zorrotz bat behin eta berriz sartu. • Meter repetidamente un objeto punzante. *Irixak akuluakin ondo zastiau ezian, mobidu bez./ Erliak majo zastiau najok besuan. 2. zastíau, zastiaúa* (d). izena. Zastiatze ekintza. *Artuik sardia ta zastiau bat emuixok txalai ia ixiltzen dan. Txorta-jotzeaz jarduterakoan halako esaldiak entzun daitezke tabernazuloko giro bastoan. Dedios, neska orri emungo notsaitek zastiaua./ Emuixok zastiau bat eta sosegaukok.*

**ZÁTAR1. zatar, zatárra** (a). adjektiboa. Itxusia. • Feo, -a. **2. zatar, zatárra** (c). adjektiboa. Eguraldi txarragatik ere, beroa nahiz hotza izan, esaten da. *Gaur bero zatarra dago./ Egualdi zatarra ei dator zapaturako. Ik. itxusi. berba zatar, berba zatarrak* (a). *Ezizu esan berba zatarrrik. berba*

**zatarreko, berba zatarrekúa** (b). Hitz itsusiak esan zalea. *Ezta persona txarra, baiña berba zatarrekua. 3. zatar (b). adberbioa. Feamente. *Zatar portau zan nerekin. Ant. zatárki. 4. zatar,**

**zatárra** (a). izena. Esku-zatarra, esku-zapia. • Trapo de cocina. Ik. **esku-zátar. 5. zatar, zatárra** (d). izena. Kalezatarra, zarama. KALEZATAR esan ohi da gehienetan. **6. zatar, zatárra** (d). izena.

Hormaren kontra ezkutuan gelditzen den markoaren aldea. *Au pareta kontra zoiarren, zatarra esaten gontsan guk oni. Jul. Ez da leuntzen, porlan-masak hobeto ora diezaion.*

**ZATARKERÍXA, zatarkerixía** (b). izena. Acción fea, de mal gusto, ordinarioez. *Ume, ezizu zatarkerixaik eiñ. Umeei esateko erabilia, batik bat.*

**ZATÁRKI** (b). adberbioa. Feo, feamente. *Kuadro orrek zatarki emuten dau ertz orretan. Sin. zatar.*

**ZATÁRTU** (b). da-du aditza. Afear(se). *Zela zatartu dan Joxe./ Kioskuak zatartu eitten dau plazia.*

**ZÁTI1. zati, zatíxa** (a). izena. Pusketa. • Trozo, pedazo. *Emaoidazu ogi zati bat.* **2. zatí bat** (c). juntagailua. En buena medida. *Diru kontuengatik asarretu zien zati bat./ Oso pozik zetorren, zati bat erandako botilla ardauaaittik.* **3. zati baten** (b). adberbioa. Denboraldi batean. • En una temporada. *Ezingo naiz zati baten zuekin mendira joan.* Baita zati bateko edo zati baterako, zati batera... Badaukau or zati bateko &mdash;edo zati baterako&mdash; lana./ Andik zati batera jakin zan lapurra. **4. zatíxa obe** (c). graduatzailea. Askoz ere. • Mucho mas. *Menorca Mallorca baiño zatíxa polittaua pentsatzen jat./ Joan dan urtian zatíxa obeto pasau giñuan.*

**ZATÍTTU** (a). da-du aditza. Hacer(se) pedazos. *Patatak zurittu ta zatittu.*

**ZÁUNKA, zaunkía** (a). izena. Ladrado. *Txakur zaunkia izan da gau guztian.* **záunka** (a). adberbioa. Zaunka egiten. • Ladrando. *Txakurra zaunka dago./ Zaunkaz pasau dau gau guztia.* **záunka eiñ** (a). du aditza. Ladrar. *Gure txakurrak erozeiñi eitten dotsa zaunka.* Sin. **jaunke. zaunka-berba eiñ** (c). esapidea. Zakar berba egin, txakurren modura. *Neri ezidazu zaunka-berbaik eiñ, belarrondoko bat artu nai ezpozu.*

**ZÁURI, zauríxa** (d). izena. Herida grande. *Guk ola eridia txikixa danian karraputxíxa. Eskuan igual da &ldquo;Ze daukak or?&rdquo; da, &ldquo;emen karraputxi bat&rdquo;; zer txiki bat.* *Zaurixa aundixao danian, jeneralian: &ldquo;Ori dok zaurittua daukakena&rdquo;.* Don. Gutxi erabilia, orain ERIDA entzuten baita ia bakarrik. Adin handikoez ezagutzen eta inoiz erabili ere egiten dute. ZAURITTUa agian gehiago ZAURÍxa baino. Txikia denean KARRAPUTXÍxa omen da, eta handia denean ZAURI.

**ZAURÍTTU1. zaurittu, zaurittúa** (d). izena. Herida grande. Ik. **záuri.** **2. zaurittu** (d). da-du aditza. Herir(se). Sin. **erídu.** Ik. **záuri.**

**ZÁZPI** (a). zenbatzailea. Siete.

**ZÁZPIK11. zázpiki, zázpikixa** (c). izena. Sietemesino. *Anairik gaztena zazpikixa da.* Zortzi hilabetekin etorri ezkerro, **dénboraik barekúa.** Don. **2. zázpiki, zázpikixa** (c). adjektiboa. Pertsona geldigor eta ipurterreengatik esana. • Dícese de las personas cascarrabias y de poco asiento. *Ez jarritta, ez zutik, ez kalian, ez tabernan, ezin leike patxaraz ibilli zazpiki orrekin.* Ik. **erretxin, ipúrterre, kakapirri.**

**ZAZPÍORTZ, zazpíortza** (d). izena. Apero de labranza de siete púas. Ik. **bóstortz.**

**ZAZPÍZAR, zazpizárra** (d). izen propioa. ZAZPI IZARRAK (OÑ.). Osa mayor, carro. Don. "*zazpi izarrak*: nombre de una constelación. Se forma del *Bostoillua* y otras dos estrellas un poco más grandes." (Izag Oñ).

**ZÁZTAR, zaztárra** (b). adjektiboa. Txikia, txatxarra. • Pequeñito, -a, poquita cosa. *Ume zaztar batek tiragomiakin antiaju kristala apurtu dost./ Oillasko zaztar bateaittik milla duro pagau giñuan.* Aukeran badirudi txatxar txikiagoa dela. Ik. **txastartu, txátxar.**

**1. ZE** Ik. **zer.**

**2. ZE** Ik. **eze, zegaittik eze.**

**ZÉGAITTIK ZÉAITTIK, ZÉGATIK.1. zegaittik** (a). Zergatik, galdetzailea. • Por qué? *Zegaittik preguntatzen dozu.* Azen.: zegáittik ere bai. Ik. **zetáko, zetan.** **2. zegaittik eze** (c). juntagailua.

Adineko jendeak eta ez hain adinekoak juntagailu kausal gisa erabilia. • Partícula que se usa en oraciones causales explicativas. *Etzaittez biar etorri, zegaittik eze biar illan azkena da ta jente asko egongo da./ Zeaittik eze Txirritak etara zittuan fueruen e, arek galdu zittueneko kantak eta. Hil./ Tio ete zan gero? Zeaittik eze Kaxinto-Guenetxe ezkontzeko arrebiakin plantau zan da. Hil.* ZEGAITTIK soilik ere bai. Sin. **eze**.

**ZEIN DDA** (d). juntagailua. Konparazio juntagailuaren indargarria, oso adinekoek bakarrik darabiltena. Como si... *Diarra batetik bestera, segimena, zein dda sokian moduan, kilometruen moduan. Hil./ Otx ein basuai, zein da etxia balitz letz, da arek euparia ein dda kontestau daben moduan kontestau. Hil./ Zein dda... eztakit ze balitza bezelaxe. Klem.*

**ZÉINTZUK** (a). izenordaina. Galdetzailea. Quienes, cuales. *Zeintzuk datoz afaltzera?* Ik. **zéiñ**.

**ZÉIÑ1. zeñ** (a). izenordaina. Nor. • Quién. *Zeñ etorri da?* Sin. **nor. zein baiño zeñ** (c). esapidea. Cada cual más. *Bi neskakin zebillen, zein baiño zeñ polittaua./ Zein baiño zeñ astuauak die bi anaiak.* **ZEI2. zeñ** (a). izenordaina. Cual, qué. *Zeñ lekutan bizi za?* Galdera pluraletan ere bai: *Zein nai dittuzu, gorrixak ala beltzak? Don. Testuinguru honetan **zeintzuk** ere bai.*

**ZÉKEN, zékéna** (d). adjektiboa. Zikoitza. • Tacaño, -a. Zaharrek bakarrik erabilia. Ant. **Zekena, mekena, begixan txeldorra, siku, ximur.**

**ZEKOR, zekorra** izena. (Leintz) Idiskoa. Sin. **íxko**.

**ZÉLA** (a). adberbioa. Nola. • Cómo. Ik. **nola. zela leiken** (c). esapidea. Harridurazko esapidea. *Zela leiken ain txorimalua izatia!*

**ZÉLA-ALÁKO1. zéla-aláko, zéla-alakúa** Modu batekoa edo bestekoa. *Ointxe kotxia erosi biarran gare zela-alakua.* Sin. **nola-alako**. Sin. **zéozelako, zelabaitteko. 2. zéla-aláko, zéla-alakúa** (b). izenlaguna. De dudosa calidad o condición. *Etzeuan peskaurik eta azkenian zela-alako antxo batzuk ekarrittut./ Txakurra badaukau baiña zela-alakua.* Sin. **nola-alako**. Sin. **zéozelako, zelabaitteko**.

**ZELÁBAITT1. zelábaitt** (b). adberbioa. Nolabait. • De una manera o de otra. *Eztakitt zela, baiña zelabaitt urtengou aurrera./ Ezin dozu zelabaitt jirau afaittako ogixa?* Sin. **nolabaitt** (gutxi erabilia). Sin. **zela ero ala, zeozela. 2. zelábaitt** (c). adberbioa. Nola edo hala, ez oso ondo. • Así así, no muy bien. *Arek pe euskeraz zelabaitt daki./ Etxeko lanak zelabaitt eindda eruaittu eskolara.* Sin. **zela ero ala, zeozela**.

**ZELABAITTÉKO1. zelabaitteko, zelabaittekúa** (c). izenlaguna. Nolabaitekoa, edozein modutakoa. *Nai dozuena eiñ, baiña bazkaltzeko ekarri zelabaitteko ogixa./ Txamarria jantzizu, negukua ero zelabaittekua.* Sin. **zéozelako, zéla-aláko. 2. zelabaitteko, zelabaittekúa** (c). izenlaguna. Ez oso ona. • De dudosa calidad. *Azkenian ikusi giñuan teatrua, baiña zelabaittekua.* Sin. **zéozelako, zéla-aláko**.

**ZÉLA ERO ÁLA1. zela ero ala** (b). adberbioa. De alguna forma. *Zela ero ala moldauko ga./ Eik zela-ala ta laga. Don.* Sin. **zelábaitt, zeozela. 2. zela ero ala** (b). adberbioa. Ez oso ondo. • De deficiente manera. *Aspaldixan zuen anaia zela ero ala dabill.* Sin. **zelábaitt, zeozela**.

**ZELÁI, zeláixa** (a). izena. Prado. Izagirrek "prado donde se siega la hierba" definitzen du, *esparru eta larre hitzetatik bereizteko ziurrenik*. Ik. **espárru, Josépetako Zelái. zelai laga** (b). aditza. Aurten

patatia sartu dou baiña datorren urtian zelai lagako dou. *Aurten patatia sartu dou baiña datorren urtian zelai lagako dou.*

**ZELAI-PERRETXIKO, zelai-perretxikua** izena. (Eibar) camarophillus pratensis. Higróforo de los prados.

**ZELÁKO1. zelako, zelakúa** (a). Nolakoa. Galdetzailea. *Zelakua da zure etxia?/ Zelako erregalua nai dozu?***2. zeláko** (a). graduatzailea. Zein. • Cuán, qué. *Zelako luzia dan bide au./ Zelako etxe ederra daukazun./ Zelako urrin dagon Aixkorriko puntia.* Aditzak **-n** amaieran.

**ZELAKO LAPIKO, ALAKO TAPA** esaera. Bakoitzari, dagokiona. *Baekian berak nola berba egin. Zelako lapiko, alako tapa.* (SM Zirik).

**ZELÁMIÑETAN** (d). (Osintxu) Txandorrika. Ik. **txándorrika**.

**ZELBE** Ik. **xélba, -e**.

**ZÉLEBRE, zélebria** (b). adjektiboa. Barre eragiten duen pertsona, barregarria. • Gracioso, -a, ocurrente. *Zuen tio puxkat erandakuan oso zelebria zan.* Ik. **xélebre**.

**ZELEBREKERÍXA1. zelebrequeríxa, zelebrequerixía** (b). izena. Gauza barregarria. • Acción o dicho gracioso. *Makiña bat zelebrequerixa einddakuak die Kikio, Txikixa ta konpañia.* **2. zelebrequerixa, zelebrequerixía** (c). izena. Xelebrequeria, zelebrequeren ekintza, fundamentu gabeko gauza, tontakeria. *Bueno i, ezidak esan zelebrequerixaik. &ldquo;* XELEBREKERIXA gutxi entzuten da. Ik. **xélebre**.

**ZÉLULA, zélulia** (d). izena. "Cédula personal. Documento que hace unos lustros se obtenía anualmente mediante el pago de un impuesto y servía para acreditar la personalidad. •" (M. Moliner). *Gero zelulia, etxian, personako zelulia. Pezetia ero errial bi izete i zan bestiena, ta etxeko buruana iru pezeta ero pezeta bi ero, ta aura aguazillak urtian, setienbrian ero, etxez etxe zelulioi partidu ta auraxe kobrau. Hil.*

**ZEMÉNDI, zemendíxa** (d). izena. Azaroa. • Noviembre. *Garixa, neguan eo, zemendixan erindda eoten zan. Jjp. la galdua. Orain nobienbre.*

**ZÉMENTO, zémentua** (b). izena. Cemento. Sin. **porlan**.

**ZENBÁITT** (c). zenbatzailea. Zenbait. • Algunos, ciertos. *Zenbaittek ikusiko baleu odolostiak zela eitten dien probau be elittuzkek ingo./ Zenbaitt egunetan obe izaten da obetik ez jaiki.* Aditza singularrean.

**ZÉNBAT** (a). zenbatzailea. Cuanto(s). *Zenbat ardi daukazue? .* Aditza singularrean gehienetan, baina *zenbat etorri die? .*

**ZÉNBATERO** (c). adberbioa. Zenbatero izango da batzarra? *Zenbatero izango da batzarra?*

**ZENBATGURE** zenbatzailea. (Leintz) Nahi adina, ugari. *Lana zenbatgure egoten ei zan, baiñe dirurik ez.* (AA ArrasEus, 233. o.).

**ZENTELLAK JAURTI** (d). esapidea. (Eibar) Haserre, madarikazio batean ibili. • Echar centellas. *An geldittu zan gizon morroskua ikubilla altzau ta zenteillak jaurtzen.* (SM Zirik)



**ZÉNTIMO, zéntimua** (a). izena. XÉNTIMO. Céntimo. *Arek oinddio be zentimora eruateittu kontuak.* XENTIMO ere bai, halako esaldi adierazkorretan: *Etzeban erropatan xentimoik pe gastatzen.* Ik. **xémeiko**.

**ZENTZU** Ik. **zéntzun**.

**ZENTZÚDUN, zentzudúna** (c). adjektiboa. Zuhurra, arduratsua. • Juicioso, -a, responsable. *Zentzuduna e, responsablia ero; intelijentiaaittik pe esan leikek paiña ez; responsabliagaittik jeneralian.* Klem. Ant. **zentzúdun, zentzunéko**. Ik. **zentzúzko**.

**ZÉNTZUN, zentzúna** (c). izena. ZENTZU. Juicio, sentido común, cordura. *Zentzuna galduta eztaukan personiak ezin leike ori eiñ./ Orrek eztauka zentzuik. Zentzu gutxikua da ori.* Klem. Sin. **juízio**.

**ZENTZUNÉKO, zentzunekúa** (c). izena. Zentzuna edo zuhurtzia duen pertsona edo gauza. • Cosa o persona juiciosa. *Zentzuneko gauza bat eztau esan sermoi osuan./ Neri zure gizona beti pentsau izan jata zentzuneko personia.* Ik. **zentzúdun, zentzúzko**.

**ZENTZÚZKO, zentzuzkúa** (c). adjektiboa. Zentzua edo arrazoia duen gauza. • Cosa razonable o juiciosa. *Zentzuzkuak esan zittuan esan zittuan berbak.* Klem./ *Joan dan juntan arek etzeban esan zentzuzko berba bat.* Ik. **zentzúdun, zentzunéko**.

**ZENZERRÁDA, zenzerradía** (d). izena. Cencerrada a los novios. *Lenao emen be eitte ei zan intxarri-jotia ta, auzo-ermittan ezkillia o, kanpaia jotia ta olakuak. Neuk eztot ezautu e. Kastillan bai. Kastillan zenzerradia; Kastillan gogorra.* Don. Goian ikusten dugunez, Don.k dio Gaztela aldean ohizkoa zela, baina hemen ez duela ezagutu. Ik. **arranak jotia**.

**ZÉOZELA1. zeozela** (c). adberbioa. Zela edo hala. • De alguna forma. *Eztakitt zela, baiña zeozela moldau biou illan azkenera aillegatzeko.* Sin. **zela ero ala, zelábaitt**. **2. zeozela** (c). adberbioa. Zela edo hala. • De deficiente manera. *Marruekoson be zeozela bizi die./ Kuartua pintau dau, baiña zeozela.* Sin. **zela ero ala, zelábaitt**.

**ZÉOZELAKO, zéozelakua** (c). izenlaguna. Zelabaitekoa. Sin. **zelabaittéko**.

**ZÉOZER** (a). izenordaina. Zer edo zer. • Algo. *Zeozzer ein biakou.* Ik. **zerbáitt**.

**ZEOZELITOS** Ik. **ezebezítos**.

**ZEPA1. zepa, zépia** (c). izena. Metalak galdatzerakoan ateratzen duen zaborra. • Escoria. *Or eote zuan zepia, ta pillia inddakuan ba fuera bide ezkiñan batera.* Jen. Sin. **eskárbill**. **2. zepa** (d). adjektiboa. "Gozotasunik gabea (lurra), lur harroa ez dena, aitzurrean itsatsita geratzen dena, labrantzarako txarra.

*Zer nai dozue lur zepa onetan artzia?" (Lar Antz).* **zepa-zepa** (d). adberbioa. Trinkotuta. • Apelmazado. *Arro-arro, libre-libria, luzia ta arrua. Batzuk eoten dia xepa-xepa, arek soltau ezindakuak izate zien; arrua biar izate zan, ta illia komeni zan ola luzia.* Pedro. Artileari buruz dihardu. Ik. **tringótu, zepátu**.

**ZEPÁTU** (d). da aditza. Lurra tringotu. • Apelmazarse la tierra. *Buztin-lurra ero zepatu; zatartzia lurra. Tringotu esan izan da emen geixao baiña.* Klem. la galdua. Sin. **tringótu**. Ik. **zepa-zepa**.

**ZEPATZ ZAPATZ.1. zepatz, zepatza** (d). izena. Txirbia, berez sortutako zuhaitz-landarea. *Txirpixa*

esaten dotse orri, pao-zepatza eo, aitz zepatza; zepakua da, osea ke txarakua, berez etorritakua. Juantxo. "Aritz-zapatzak: robles chaparros." (Izag Antz). Ik. **txirbi**. **2. zepatz, zepatza** izena. (Oñati) "La lana apretada formando como pelotillas." (Izag Antz).

**ZEPÉLIÑ**, **zepeliña** (c). izena. (lagunartekoa.) Mozkorra. • Borrachera. *Kriston zepeliña arrapau giñuan atzo. SXX. mende hasierako aire-ontzi famatuaren ohoretan. XX. mende hasierako aire-ontzi famatuari ohore egiten dion berba Sin. atal, atxur, melokotóe, -i.*

**ZÉPILLO1. zépillo, zépillua** (a). izena. Cepillo en general.**2. zépillo, zépillua** (c). izena. Cepillo de carpintero. Sin. **arótz-zépillu**.

**ZÉPO**, **zepúa** (c). izena. Txoriak, arratoiak, etab. harrapatzeko tranpa. • Cepo para pájaros, ratones, etc. Ik. **tránpa**.

**ZER** (a). izenordaina. ZE. Zer. • Qué. *Ze esan dozu?* ZE entzuten da gehienetan.

**ZÉRA** (a). izenordaina. Palabra que se usa en sustitución de una que no nos viene a la memoria; también cuando queremos hacer una enumeración. *Erosidazu zera, zigarro pakete bat./ Zera esan dosta: oian egoteko ta pastilla onek artzeko. bai zera!* (b). interjekzioa. Qué va! *Ori politta dala? Bai zera! Pentsau eingo jak. ez zera* (b). esapidea. Besteak esandako ezezko esaldiari aurka egiten hasteko esapidea. *Eztaukala dirurik? Ez zera. Nun jauzkak pa terrenuekin etaratako milloiak? zeréko zéra* (c). esapidea. Erdi brometan, izena ebitatuz baina sujerituz, erabiltzen da. *Zereko zerak esan jostak juateko zereko zerera eta preguntatzeko zereko zerai ia nun laga zeban zereko zera./ Zereko zerian emun jotsan laztana.* Ik. **zértu**.

**ZERBÁITT** (c). izenordaina. Zer edo zer. • Algo, alguna cosa. *Zerbaitt ikusten bozu, erosi.* Gutxi erabilia. Sin. **zéozar**.

**ZERBÁITTI EDO NORBÁITTI DEBOZIÑÓIK ÍZAN EZ** (c). esapidea. Ez gustatu. *Orrek lanai eztotsa bape deboziñoik./ Nazionalistia izan arren Arzallusi eztotsa bape deboziñoik.*

**ZER DALA TA** (b). juntagailua. ( adierazkorra.) ZE DALA TA. Zergatik. • Por qué, a santo de qué. *Ze dala ta pagau biot multia kulpia beria bada.* ZE DALA TA esan ohi da, batik bat.

**ZÉRDEN**, **zerdéna** (d). adjektiboa. ZARDEN (OÑ., ANTZ.). Lerdena, liraina. • Esbelto/a y hermoso/a. "Derecho, bien formado, esbelto." (Izag Oñ). *Zerdéna, aundixa ta edarra danian, zerdéna. Klem.* la galdua. Ik. **lerden**. **liráiñ**, **liráiña** (c). adjektiboa. Esbelto, -a. *Iru umen ama izan arren oso liráiña dago.*

**ZERÉGIÑ**, **zeregiña** (b). izena. Quehacer, tarea, ocupación. *Beste zeregiñik ezpadago joan eingo ga./ Arek pe bere zeregiñak eukikoittu ta laga daixogun bakian.*

**ZÉREN**, **zeréna** (c). izena. Zuraren sitsa. • Carcoma, polilla de la madera. *Ilberan botatako egurrai nekez eitte jako zeréna./ Zeréna; egaran eulixan mooko zer bat faten da. Da zulo txiki-txikixa eitten dau. Martin./ Altza da egur bat egunero dabillen gauza baten oso resultau ona dauka, baiña geldí lautzen bozu, pipixak, zeenak seiduan jaten dau. Martin.* Sin. pipi. Ik. **síts**. **zerénak jan** (d). aditza. Carcomer.

*Zerenak janda dare etxeko mueble guztiak.zerénak jo* (d). aditza. Atacar la carcoma. *Zerenak jotén asitta dare Seminaixoko abiak.*

**ZERÉNDU** (d). da aditza. Zerenak jan. • Carcomer la madera. *Ataiko kutxia zerentzen asitta dao.*

Fran.k hezurrei buruz ere badarabil, umorez. **Jausi nitzanian, jentiak esaten daben moduan desgastiakin azurrak zerenduta egoten diela; nik an artu naban zartariakin e, zerenduta egon balitza auts eiñ eingo zan.** Ik. sistu, sitsak jan, zerénak jan, zerénak jo, síts.

**ZERÉSAN, zeresána** (c). izena. Hizpidea. • Tema del que hablar, motivo de hablaría. **Txibatua zala ta etzala, makiña bat zeresan emun zeban beintzet. Lana esandako egunerako entregatzen bou, eztauke zer esanik.** ZERESANA EMON, batik bat. "Zer esan" ere bai, horrelakoetan: Lana esandako egunerako entregatzen bou, eztauke zer esanik. Ik. **berbakizun.**

**ZERGALDU, zergaldúa** (b). izena. ZEGALDU. Zer galdua. • Nada o algo que perder. **Nik ortan eztaukat zegalduik./ Zegaldua daukana mobidu deilla.** ZEGALDU esan ohi da gehiago.

**ZERIKÚSI1. zerikusi, zerikusíxa** (b). izena. Influencia, dependencia, relación. **Kosta alderako zerikusi aundixa dauka egualdi onak./ Nik eneban zerikusirik euki asunto aretan./ Gaur detenidu dabenak eztauca ETAKin zerikusirik.** 2. **zerikusi, zerikusíxa** (b). izena. Ikusteko moduko gauza(k). • Cosa(s) que merecen verse. **Gure errixan eztago zerikusi aundirik, ostera Bilbon beti izaten da zerikusixa.**

**ZERRA1. zerra, zerría** (b). izena. Sierra. **Zerriakin moztu bia da punta ori.** Ik. arpan, tróntza. **zerria erabilli** esapidea. Jatordu baten asko eta bizkor jan. • Ponerse las botas comiendo. **Ha zuan ha zerría erabiltzia Sagardo Egunian plazan! Ordu erdixan dana amaítu zuan; badakik duan danian gauzia**2. **zerra, zerría** (b). izena. Zerrategia. • Serrería. **Okandin zeuan zerría./ Ori zerran lan einddaku da gaztetan.** Sin. **zerrátoki, zerreríxa. zerran** ebai aditza. Zerrategiko zerra automatikoaz ebagi.

**Zerran ebaittako esolak die onek.** ZERRIAKIN EBAI. Esku-zerraz edo trontzaz ebagi. **Azkenian zerriakin ebai biar izan dot armaixua.**

**ZERRADÚRA1. zerradura, zerraduría** (a). izena. Sarraila. • Cerradura. Sin. **zerráill, -a.** 2. **zerradura, zerraduría** (d). izena. Hesia. • Cercado. Ik. **esi.**

**ZERRA-ETXE, zerra-etxia** (d). izena. Armazón de sierra.

**ZERRÁILL, -A, zerráilla, -ía** (c). izena. Cerradura. **Zerráillía apurtu biar izan giñuan etxian sartzeko.** /a/ berezkoaz zein gabe. Gero eta gehiago **zerradura.**

**ZERRÁILLA-ZÚLO, zerráilla-zulúa** (c). izena. Ojo de cerradura.

**ZERRÁRI, zerraríxa** (b). izena. Zerran lan egiten duena. • Aserrador. **Oso famaia zan Berrixotako Zerraritxua.**

**ZERRÁTOKI, zerrátokixa** (c). izena. Serrería. **Irizarren zerratokixa Ozetatik gora dago.** Lehen **zerratoki edo zerra zen arrunta, baina orain zerreríxa entzuten da gehiago.**

**ZERRÁTU** (c). adberbioa. Zarratu. • Abigarrado. Dícese que lo están las plantas, la barba, etc. cuando surgen muy juntas, apretujadas. **Batzuk patatia oso zerratu sartzen dabe, guk ez./ Illia zerratu daukazu.** Irudizko zentzuetan ere entzun daiteke. **Orrek gizurra zerratu esaten dau.** Ant. **míetz.**

1. **ZERRÁU1. zerráu** (a). du aditza. Itxi. • Cerrar. **Atiak ondo zerrau urten aurretik.** Sin. **itxi.**

tratua zerrau esapidea. Ik. **tratúa itxi**. **2. zerrau** (a). aditza. Zerraz ebaki. • Aserrar. **3. zerráu, zerráua** (c). adjektiboa. Completo, -a, cerrado, -a. **Ogiduna zestuakin eta albuán joate zien beste alako mantilla batekin beste lau, luto zerrauakin. Klem./ Lelengo urtian luto zerraua eruate zuan./ Erdera zerraua eitten juan./ Oso persona zerraua izan dok beti.** Lutoaz, berbetaz eta pertsonaren izakeraz batik bat. ITXIxa ere entzun daiteke batzuetan. **zerrau berba eñ** (c). esapidea. Inork nekez ulertzeko moduan hitz egin. • Hablar cerrado. **Estremeñuak oso zerrau eitten dabe erderaz.**

**2. ZERRÁU** (b). du aditza. Zerraz ebaki, bai esku-zerraz bai bestelakoz. • Aserrar. **Gure aitzak zerratzen diardue Irizarrenian.** Ik. **zerra**.

**ZÉRRAUTS, zérrautsa** (b). izena. Serrín. **Zerrautsa botatzen zan frontoia garbitzeko.** Sin. **zérrauts**.

**ZERRA-ZINTTA, zerra-zinttia** izena. "Sierra mecánica, cinta dentada vertical." (SB Eibetno).

**ZERRERÍA, zerrerixía** (b). izena. Serrería. Sin. **zerrátoki, zerra**.

**ZERROTA, zerrotia** izena. (Eibar) Serrucho.

**ZERTAN1. zertan** (a). Zer egiten. **Zertan hago or? .2. zertan** (a). Nola. **Zertan dago asuntua? Aurrera doia ala ez.** zertatik artatik (c). esapidea. Modu batera edo bestera. **Zertatik artatik bizi biakou./ Zertatik artatik artu dabe arrastua.**

**ZÉRTU** (c). da-du aditza. Zera egin. **Eta arek aurreko egunian markauta ipinitta zeroi nundik eñ. Lapatzakuekin zertuta, kalkulauta Lapatzara zertzeko moduan. Klem./ Ortxe jαιο ta ortxe bizi, aiketa gerria zertu arte. Eli./ Neuk e ein nittuan egun batzuk oian baiña ni bela zertu nitzan. JJP.** Ik. **zéra**.

**ZÉRTZETA, zértzetia** (d). izena. ZERZETA. anas crecca. Zarceta. Ehiztariek estimuan duten ahate-hegaztia.

**ZÉRTZUK** (b). izenordaina. ZERen plurala. **Eztakizu zertzuk esan zostan./ Etxera joan giñanian, ai ama! urrengo egunian baldaut. Zelako ostikarak eta, zertzuk artu giñuzen guk. Eneee! Cel.**

**ZÉRU1. zeru, zerúa** (a). izena. Cielo. **Onak zerura ta txarrak infarnura. 2. zeru, zerúa** (a). izena. Firmamento, cielo. **Zerua illun-illun dago. goixan zerua ta beian lurra geldittu** (c). esapidea. Ezer gabe gelditu.

**zerua irabazitta euki** esapidea. Meritu handia izan zerbait egin edo jasateagatik. **Orrekin amar urtian bizi izan bada, zerua irabazitta dauka. zerúra bégira égon** (b). esapidea. Gora begira egon, ezer egin gabe egon. **Zerura begira egonda etxak ezebe emen. 3. zeru, zerúa** (d). izena. Palio (eliz-tresna). **Prosoziñotan da etaratzen zan zerua.**

**ZERÚKA, zerukía** (d). izena. Edozein lekadunen leka. • Vaina. **Zerukia, emen eztok entzun izen, baiña Mondraue aldian da bai. Klem.** la hitz galdua. Gaur egun LEKA besterik ez da ia entzuten.

**ZERUKO KATU, zeruko katua** izena. (Eibar) Oruga. **Zeruko katua, tximeleta geixa. (AAG Eibes).**

**ZESTÉRO**, **zesterúa** (c). izena. Saskigilea. • Cestero. Sin. **otzaragin**, **zaregin**.

**ZÉSTO**, **zestúa** (a). izena. Esku-saskia. • Cesto. **Artu zestua ta ekarri arrautzak**. Izen generikoa da eta askorentzat bakarra. Ik. **íjitto-zésto**, **kótzara**, **ótarra**.

**ZESTOKÁRA**, **zestokaría** (a). izena. Zestokada, saskikada, saskia bete gauza. **Zestokara perretxikua ekarri dau**.

**ZETÁKA**, **zetakía** (c). izena. Zikin-kostra, zikina lodituta. • Costra de suciedad. **Ankak zetakia eindra zeuzkan, urtebetian garbittu barik zeuzkan da**. ZETAKIA EINDDA, batik bat. Sin. **tortíka**.

**ZETÁKO** (c). adberbioa. Zergatik. Por qué. **Zetako ez aiz lenao etorri?/ Zetako joan za kuartora?/ Eztakit zetako ez doten mendiko botaik ekarri**. Adinekoek bakarrik. Ik. **zegaittik**, **zetan**.

**ZÉTAN1**. **zetan** (a). adberbioa. Zertan. • En qué. **Zetan zabitz?/ Zetan geratu zan gauzia?zétan ero ártan** (b). esapidea. Zerbaitetan. **Denporia pasau biarra daukau zetan ero artan**. **zetátik ero artátik** (c). ( adierazkorra.) Zerbaitetik. **Zetatik ero artatik bizi biakou**. **2. zetan** (c). Zergatik. • Por qué.

**Eurixa asi dabenian zetan etzate etxera etorri?/ Etzeukan orregatik zetan asarretuik**. Adinekoek erabilia. Ik. **zetáko**, **zegaittik**.

**ZETARÁKO** (a). adberbioa. Zertarako. • Para qué. **Zetarako da traste au? Askotan ZETAKO esan ohi da ZETARAKOren ordez.Zetako dozu pote au?**

**ZETERIXA**, **zeterixia** izena. (Eibar) "Umeteria, haur talde handia. **Erriko zeterixa guztia batu zan komedixara**. Etim.: "xeheteria", ziurrenik. Sin. **umeteríxa**.

**ZÉTO-ZÉTO** (d). adberbioa. Zehatz-mehatz. • Exacto, con exactitud. **Arek ekixen zeto-zeto-zeto, ekixen orrek, e. Orrek danak ekixen. Hil**. ZETO soilik ere bai. **Nik sasoi baten e, kantapapela gaur erosi plazan da illebeta orduko dana, jota zeto, buruz. Hil. Ez diogu besteri entzun. Etim.: "ziezto" (zehazto, zehazki) ala gaztelerazko "exacto"? Ik. ziezto.**

**ZEU** (a). izenordaina. ZUren intentsiboa. **Nai bozu zeuk eizu./ Ori zuk zeuk ein biarrekua da**.

**ZEUEK** (a). izenordaina. ZUEKen intentsiboa. **Zeuek jakingo zue zetan zabizten./ Ori zuek zeuek ikusi biozue**.

**ZEUENGANDU** Ik. **beregándu**.

**ZEURE** (a). izenlaguna. ZUREren intentsiboa.

**ZEUREGANDU** Ik. **beregándu**.

**ZÉZEN**, **zezéna** (a). izena. Toro. Ik. **zézentxo**.

**ZEZÉNDU** (c). aditza. Idiskotu, zezenak bihaea estali. **"Zezenduta dao: está cubierta por el toro."** (Izag Oñ). Sin. **ixkotu**.

**ZEZÉN-PLÁZA**, **zezén-plázia** (b). izena. Plaza de toros. Sin. **korrída-pláza**.

**ZEZEN-SÚZKO**, **zezen-suzkúa** (c). izena. Suzko zezena. • Toro de fuego. **Zezen-suzkuakin billurtu da**. Sin. súzko-zézen.

**ZÉZENTXO**, **zézentxua** (c). izena. Zezen txikia, jaietan eta jareiten dena. **Gero egon zien zezentxuak pe bai; zezenak, aixkora-jokua, arri-jasotziak...** Hil. **zezentxo bat einda egon** (b). esapidea. Oso indartsu egon gazte bat. **Zezentxo bat einda dago zuen Mikel**.

**ZEZÍÑA**, **zeziña** (c). izena. Gatza emandako haragia; hemen ardiarena ia bakarrik. • Cecina, carne salada. **Aintxiñan, besteik etxeuan da, makiña bat zeziña jandakuak gaittuk, ez gozo-gozua dalako baiña**.

**ZÍAR1. ziar** (a). posposizioa. Zehar.

Zeharkatzen den lekua zehatz markatzen denean: NUNDIK ZIAR. **Barrenkaletik ziar pasau die korredoriak. Bestela NUN ZIAR. Kalian ziar ibilliko da aura. Denbora ere bai. Zenbat txikito eraten ete dau egunian ziar.**órtik ziar1. ortik ziar (b). adberbioa. Hortik zehar. • Por ahí.

**Ortik ziar juaten da Elusura.**2. ortik ziar (b). Nonbait, auskalo non, edonon. **Andra koittaua etxian da bera berriz jaun ortik ziar. Kanpolarrosa majua don ori./ Joan ari ortik ziar!** 2. ziar, ziarra izena. Zeharra, mendi magala, aldapan dagoen paraje luze eta zabala. **Azkonabittako ziar baten dauke munteixa.** Leku-izenetan batez ere: **Arantzeta-ziarra, Isusi-ziarra, Larrabil-ziarra (Elgetako toponimoak).**3. ziar, ziarra izena. (Antzuola) "Jipoia. **Ta gero obatu jaue orri, sorgiñorri, ta emon jaue ziarra.**" (Lar Antz).

**ZIAR-BEGIRATU**, **ziar-begiratúa** (d). izena. Zeharka egindako begiratua. **Ziar-begiratu bat bota jostak dardaraz jartzeko modukua.** Ik. **begirákuna, -e**.

**ZIARBIDE**, **ziarbidia** (c). izena. (Oñati) "Camino que sube en zig-zag" (Izag <i>Oñ</i>).

**ZIÁR-ÉTZINKA** (d). adberbioa. Zehar-etzanka. • Apoyado **Ziarretzinka orri; ola baztarren baten kontra, arbolian kontra baldin badago: &ldquo;ziarretzinka jarritta euzki-epela artzen majo dago ori&rdquo;.** Don. **ziár-étzinka jarri** Apoiatu.

**ZÍARKA1. ziarka** (c). adberbioa. Zeharka, zeharretara. • De lado, de través, ladeando, en zig-zag. **Ziarka-ziarka eruan giñuan kutxia tataras./ Zuzenian jatxi biarrian ziarka jetxi giñuan aldapia.**

Sin. trábesetara, ziarretara. 2. ziarka (b). adberbioa. Zeharka, ez modu zuzenean. Irudizkoetan, batik bat. **Eztau garbi esan baiña ziarka bai./ Kontuz orrekin ziarka begiratzen dau ta.**

**ZIÁRRARI**, **ziárrarixa** (d). izena. Zeharraria, oihalaren bilbea osatzen duten zeharkako hariak. • Trama. **Au zan subilla eta atzetik zetozen beste olako subill aundi batetik arixak, eta gaiñera emen ziarrarixak sartu. Josu.** Zeharraria anezkak eramaten zuen alde batetik bestera, zutarien artetik. Ik. **zutari**.

**ZÍARRETARA** (b). adberbioa. Zeharretara, zeharka, trabesetara. • De lado, de través, ladeando, en zigzag. **Lenengo jo zuzen gora ta gero ziarretara./ Zuzenian igo biarrian ziarretara jo ezkerok gutxiao kantsatzen da.** Oinez goazenean eta aldapa handia denean ziarretara igotzea komeni izaten da. Sin. trábesetara, **ziarka**. Ik. **zuzenían joan, zuzen**.

**ZIARRO** Ik. **zigarro**.

**ZIBILÍZAU**1. zibilizau (c). da-du aditza. Civilizar(se). *Ze eingok pa zibilizau bareko jente onekin.*  
2. zibilizau, zibilizáua (c). adjektiboa. Civilizado, -a. *Ori etxok eitten persona zibilizauak.*

**ZIBILIZAZÍÑO**, zibilizaziñúa (d). izena. Civilización, sobre todo en el sentido de educación. *Urte bigarrenko barrixa (umea), aura azten zanian beste bat barrixa, urrenguan beste bat barrixa. Olaxe mundua. Zibilizaziñoik pez bia danik eta. Mertz. (AA BergEus. 333. o.) / Zibilizaziño gutxiko jentia jaok gure auzuan.*

**ZIBÍTTA**, zibittía (c). izena. ZIPITTA. Zigorra; makila mehe, ximel eta bihurkorra, jotzeko balio duena. Don.k dio punta mehea duen zigorrari deitzen zaiola zibitta. • Palo delgado y flexible que sirve para azotar. *Mutikuak! Etortzen banok orra zibitta bat artuta.../ Aintxiñan maistruak zibittia eruan eraitte zotsen umiei, gero erak joteko./ Zigorrak puntia meia baldin badauka, orduan zipittia esate akok ari. Don.* Zumezkoa edo urritzekoa izan ohi da. Ik. zígor.

**ZÍBURU**1. zíburu, zíburua (a). izena. Columpio. *Aitta, guazen ziburuan ibiltzera. Kolunpixo esaten hasita dago gaurko haur eta guraso asko.* Sin. txintxaun. 2. zíburu, zíburua (d). "Especie de puente de madera para pasar la alambrada del seto." (Izag Oñ).

**ZÍDAR**, zidárra (a). izena. Plata.

**ZIDAR-ARI**, zidar-arixa (Eibar) "Hilo de plata para el perleado. • Damaskinatuan, urredunak perliaurako prestatzen eban zidarrezko harixa." (SB Eibetno).

**ZIDARBISTU** Zidar bainua eman. • Platear un metal.  
Ik. zidarbitsézko.

**ZIDARBITSÉZKO**, zidarbitsezkúa (d). izenlaguna. Zidar bainua duena. • Plateado. Ik. urrebitsézko.

**ZIDAR-BIZI**, zidar-bizixa izena. (Eibar) Mercurio. (Etxba <i>Eib.</i>)

**ZIDARRÉZKO**, zidarrezkúa (a). izenlaguna. De plata.

**ZIDARTU** (Eibar) Platear.

**ZIDOR ZUMÁKA**, zidor zumakía (d). izena. . Zuma edo sahats klaseren bat dela uste dugu. (?). Ik. zígor, zumáka.

**ZIELORRASO** Ik. suelórraso.

**ZIÉNTO**, zientúa (b). izena. Ehuneko multzoa. Hala kontatzen dira landatzeko landareak. • Ciento. *Porru-zientua berrogei duruan dabill./ Amar ziento sartuittugu.* Ik. euneko.

**ZIÉNTOKA** (b). zenbatzailea. A cientos, a montones. *Txanpiñoiak zientoka dare gure etxe aurrian.*

**ZIERNAR**, **ziernarra** izena. (Leintz) Laharra, masusta ematen duen landarea.

Sin. **lar**.

**ZIÉRO** (a). adberbioa. Zeharo, erabat. Del todo, completamente. *Eztotsau pagauko obria ziero akabau arte.* Zi-e-ro edo zie-ro (diptongoaz), bietara. Ik. **zietz**. **zierokúa éindda egon** 1. **zierokua éindda egon** (c). esapidea. Guztiz zoratuta egon. *Amandrioi zierokua éindda dauke.* 2. **zierokúa éindda egon** (c). esapidea. Guztiz mozkortuta egon. *Atzo zierokua éindda jeuan Patxiko.* 3. **zierokua éindda egon** (c). esapidea. Guztiz gaixotuta egon. *Zierokua éindda gero asi zien medikutan.* **zierokúa izan ez** (b). esapidea. Bete-betea izan ez, normala izan ez. Subnormala izan ez arren guztiz normala ere ez izan. *Orrek badauke anai bat zierokua eztana. Erdi-zoroez ere entzuten da.* Ik. **bete-betia ez izan**.

**ZIERRÁKARRERA**, **zierrákarrera** (b). izena. ZIERRAKARRERAS, -A. Cierra carreras, coche escoba. *Zierrakarrera pasatzen danian akabatzen da karrera.* Sin. **éskoba**.

**ZÍETZ** (d). adberbioa. Zehatz, zeharo, arras. • Del todo. *Bedarra zietz galdu da botikiakin./ Lanak zietz eitteittu.* Hitz ia galdua Bergara aldean, baina ez ostera Leintzen. Gure amak problemak ditu hitzarekin esaldiak egiteko, oso entzuna duela badio ere. Elgeta aldekoa ote den dio. Ik. **ziéro**. **zitz da mitz** adberbioa. (Eibar) Zehatz-mehatz. *Maskuelok ezetz. Eukazen aginduak zitz da mitz kunplidu biar zitzuala. (SM Ezten)/ Noian kontatzera zitz ta bitz. (SM Zirik).*

**ZIEZTO** (Antzuola) "Guztiz, erabat. Badirudi jan edo jate kontuekin erabiltzen dela. *Katuak jan danak ziezto jan dittu.*" (Lar Antz). Ik. **zéto-zéto**.

**ZÍGARRO**, **zígarrua** (a). izena. ZÍARRO. Cigarrillo.

**ZIGÁRRO-MÚTXIKIÑ**, **zígárrro-mútxikiña** (c). izena. Colilla. *Mutikotan besteik ezian zigárrro-mutxikiñak erretzen giñuzen.* Gaur egun *kolilla entzuten da gehiago.*

**ZIGÁRRO-PÁPEL**, **zígárrro-papéla** (b). izena. Papel de liar. *Gaur zigárrro-papela erosten dabenak amarretik zortzik porrua erretzeko.*

**ZIGÁRRO-PÚRU**, **-O**, **zígárrro-púrua** (c). izena. Puro. *Zigárrro-purua piztu ta fubolera.* Sin. puro (orain erabiliagoa). Sin. **púro**, **-u**.

**ZÍGOR**, **zigórra** (d). izena. Jotzeko balio dezakeen makila malgua. • Vara flexible que sirve para azotar. *Zigorrak puntia meia baldin badauka, orduan zipittia esate akok ari. Don. Makeria, uztarrixai gaiñian be bai. Zakua betetzeko arua eitten zan zigorrakin. Don.* "Castigo" zentzuan, *kastigu, nahiz eta belaunaldi berriek zigor bereganatua duten.* Ik. **zibítta**.

**ZÍGUEÑA**, **zígueña** (a). izena. ciconia ciconia. Zikoina. Cigueña

**ZIKÁTRIZ**, **zikatríza** (b). izena. Cicatriz.

**ZIKÍN-BÉRBETA**, **zikín-bérbetia** (d). izena. Berbeta zikina edo. *Plazentziakua e, zikín-bérbeta bat dok aura Plazentziakua. Eli.*

**ZIKÍNDDU** (a). da-du aditza. Ensuciar(se).



**ZIKINKERÍA**, **zikinkerixía** (a). izena. Suciedad, porquería. Ik. **zikiñ**.

**ZIKÍNKOR**, **zikínkorra** (c). adjektiboa. Erraz zikintzen dena. **Erropa zurixa zikinkorra izaten da.** Ant. **zikiñestáli**.

**ZIKINTRÁTO**, **zikintratúa** (c). izena. Tratu zikina, azpikeriazkoa. • Trato sucio. **Iñok jakin nai eztaben gauza bat ero, ixilixan tratu bat itten danian ero: zikinratua. Orrek ein ddabe zikinraton bat. Zerak esate i juan, Zubixaurko Luzianon da aitta-zanak: Sindikato zikintrato, socio sucio (barreak). Arek etxaukan konfiantza aundirik iñokin. Klem.** Ik. **sindíkatu**.

**ZÍKIÑ1**. **zikiñ**, **zikiña** (a). adjektiboa. Sucio, -a. **Oso zikiña da taberna ori.** Insulto gisa era bai. **Erek akaauta euken da (ardia), zikiñak alakuak. Mertz.** **2. zikiñ** (a). adberbioa. Sucio. **Oso zikiñ dago dana.** **3. zikiñ**, **zikiñak** (b). izena. Zikinkeriak. • Suciedad, porquería. **Etxeko zikiñak etxeaurrian botatzeittu./ Zikiñez beteta dago frontoia.** Pluralean ia beti. Ik. **zikinkería**.

**ZIKIÑESTÁLI**, **zikiñestalíxa** (c). adjektiboa. Nekez zikintzen dena. Arropez esan ohi da, batik bat. • Se dice, sobre todo, de la ropa de color sufrido en la que no se notan las manchas. **Jertse au kentzeke darabitt, ain da zikiñestalíxa eze.** Sin. **loiestari** (Aram.). Sin. **loiestari**. Ant. **zikínkor**.

**ZIKIRÍXO**, **zikirixúa** (c). izena. . **TXIKIRIXO**. secale cereale. Centeno. Paraje hotz eta euritsuetara ondoen egokitzen den laborea; garia-eta baino luzeagoa izaten da. Hemen, inoiz, berdetan ganajatekotarako ebakitzeko erein izan da. Zenbait lekutan ogi beltz bat egin ohi dute, libratzeko oso ona dena.

**ZIKÍRRI-MÁKARRA**, **zikírri-mákarria, -ak** (d). izena. Hondakinak. • Desechos, restos. **Obretan ibilli zienian zikirri-makarrak beteta laga zebe etxeaurria.** Ik. **zarrámarra**. **ango zaratía, ango zikírimakarra** (c). esapidea. Zarata eta istilu handia zegoela adierazten duen esapidea.

**ZIL1**. **zil**, **zilla** (c). izena. Ombligo. **Zillian mekromina puxkat emoixozu txal jaiobarrixai.** Ik. **botóe, -i, txírrin. zilletik eiñ** esapidea. (Eibar) "Haugintzan amari zesarea egiten zaionean esaten da. **Bigarrena zilletik eiñ eban.****2. zil**, **zilla** (d). izena. Cordón umbilical. Don.**3. zil**, **zilla** (d). izena. Berakatz, kipula, porru eta halakoei barruan ardatz modura sortu ohi zaien ziri gogorkotea. Baita patataren begi edo ernemuna. • El escapo de ciertas hortalizas, y también el brote de las patatas. **Patata azixai zilla urtetetze jotsak, eta kipulak eta zilddu itteittuk... Klem. Ziri ere deitzen zaio erdiko zilari.** Ik. **garátu, zilddu.** **4. zil**, **zilla** (d). izena. Idiskoaren zakila. • Pene de toro. **Zakilla be or bealdera ta esaten da, baiña guk geuk zilla. Don.** Ik. **irízill**.

**ZÍLBOT**, **zilbóta** (d). izena. ( adierazkorra.) **ZILBOR**, **TXILBOR**. Pertsonen tripa handia. • Barriga humana de consideración. **Obispuan lakotxe zilbota dauka./ Orrek dauka zilborra, orrek.**

**ZÍLDDU** (d). da aditza. Kipula, berakatz, porru eta horrelakoei erdiko zila garatu. • Desarrollarse el escapo al ajo, puerro, etc., normalmente en la despensa hacia la primavera, y a veces en la misma huerta. Cuando esto sucede ya no sirven para comer. **Patata azixai zilla urtetetze jotsak, eta kipulak eta zilddu itteittuk. Urtetze jakonian ernemuna ero zera; patatai ernemuna urtetze jotsak, baiña zera, kipuliat-ta, berakatzai-ta zilla; ganbaran, zaartzen dienian.** Sin. **zirittu**. Ik. **garátu**.

**ZÍLINDRO**, **zilindrua** (c). Kamineroek bidegintzarako erabiltzen duten zapalgailu handia.

**ZÍMAUR**, zímaurra (c). izena. (Osintxu) Satsa. • Estiércol. *Kristonak eindra i eren e; zimaurok eta danak astinduta, alkar itxuria ezin benziduan ero. Hil.* Sin. sats.

**ZIMÁURKETA**, zimáurketia (d). izena. (Osintxu) Zimaorra sorora edo zelaira ateratze eta zabaltze lana. • Estercolamiento. *Martixan lelangorarte meriendaik ez. Gero martixan lelangotik atzera eitten bazan lurretia ero beste... zimauroketia ero, merienda. Hil.* Sin. satséta.

**ZIMEL** lk. ximel.

**ZÍMENTU**, zímentuak (b). izena. Oinarriak. • Cimientos. *Zimentuak etara, gero paretak jaso. Don.* Pluralean. **zimentuak etára** (c). aditza. Construir los cimientos.

**ZIMÍTZ**, zimítza (d). izena. ZIMETZ, ZUMITZ, TXIMETZ (LEIN.). Zurezko tirak, gaztainazkoak normalean, banasta eta saskigintzarako egiten direnak, batez ere. • Fleje de madera. *Zimitzezko zesto aundixak zien, eta an ogixak, da arek elizara eruaten zien, da sepulturan ipintzen ogi arek. Ben./ Nik ezautu dot beste bat zimitzakin inddakua. Ari burkubesua. Don./ Zimetza lenaokua izen bia da, metalikua etorri aurretikua. Zimetzakin kurioso eñ ezkerro (gaztanontzia) ori gauza ona izengo da. Luis./ Zumitzezkua, eskulekua arkuian gaiñetik dabela, luzenkia. Metro erdi inguru luzenka, azi-kotzaria. Gain libria, eskulekua erdi-erdittik, gaztaiñiakin eindra. Don. Zimítza etáratzekua deitzen dio Don.k zumitz-tirak egiteko bi eskulekudun kutxilari.*

**ZIMITZÉZKO**, zimitzezkúa (d). izenlaguna. ZUMITZEZKO, ZIMETZEZKO. Zumitez eginikoa. • Hecho de fleje de madera. *Banastak eta zestuak zimitzezkuak izeten die./ Zimitzezko zesto aundixak zien, eta an ogixak, da arek elizara eruaten zien. Ben.*

**ZIMUR** lk. xímur.

**ZINBILI-ZANBULU1**. zinbili-zanbulu "Altzoan umea hartu lo eragiterakoan eta alde batera eta bestera egiten den mugimendua." (Lar <i>Antz</i>). Sin. **txinbili-txonbolo**. zinbili-zanbuluka adberbioa. "Zinbulu-zanbuluak eginez. *Umiak giñanian amandrian altzuan zinbili-zanbuluka ibiltze giñan.*" (Lar Antz).2. zínbilu-zánbulu, zínbilu-zánbulua izena. (Eibar) Columpio. Sin. txintxaun, zíburu.

**1. ZINBILI-ZANBULU** "Altzoan umea hartu lo eragiterakoan eta alde batera eta bestera egiten den mugimendua." (Lar <i>Antz</i>). Sin. **txinbili-txonbolo**. zinbili-zanbuluka adberbioa. "Zinbulu-zanbuluak eginez. *Umiak giñanian amandrian altzuan zinbili-zanbuluka ibiltze giñan.*" (Lar Antz).

**ZINBRIÑARRI**, zinbriñarrixé izena. (Aramaio) Harri mota gogorra, apurtzeko zaila.

**ZÍNBRIXA**, zínbrixia (d). izena. Eraikuntza baten zurezko egitura edo eskeletoa. *Egurrian ola zeoze eitten danian zinbrixia esaten jako. Lelengo etxabola bat ein biar baldin bou, eingo juau egurrakin, ala ta ola ta; &ldquo;lelengo zinbrixia eingu ta teillatua emon, da gero rebokauko juau beetik e, paretak eingo jotsau&rdquo;.* Don. lk. eskéleto.

**ZINE**, zínia (a). izena. Cine. lk. paretako sorginkerixa.

**ZINGIRA** lk. ur-zingíra.

**ZINGOIÑA** ZINKOIÑA. Ik. zinkuñarri.

**ZINK**, zínka (d). izena. Cinc. *Nik betik zinka o ola ezautuittut edarrak. Egongo zien edarrak e, ikusittut kobrezkuak pe bai. Don.*

**ZINKÁZKO**, zinkazkúa (c). izena. Hecho de cinc.

**ZINKUÍÑARRI**, zinkuñarrixa (d). izena. ZINGOIÑA, ZINKOIÑA. Zingurina; harri mota bigun samarra. *[Karea egiteko] atxeko arrixa bia da, karatxa esate otsau guk; beste arri klase batzuk badia, zingoñia ero, zingoñiak pe eitten dabela esaten zaben baiña. Felix.*

**ZÍNTTA**1. zíntta, zínttia (a). izena. Cinta. *Zelako zintta politta daroiazun buruan.* 2. zíntta, zínttia (c). izena. Harakinen berbetan, txuletak dituen trontzoa. • Ristra de chuletas. *Pare bat txuleta-zintta gordeidak bodarako.*

**ZINTTA BÉDAR**, zintta bedárria (c). izena. . phalaris arundinacea. Lora sortak biltzeko, San Juan sorta, adibidez, erabiltzen da. Izenak adierazten du bere itxura.

**ZINTTA-DANTZA**, zintta-dantzia (b). izena. Koloretako zintak makila baten inguruan lotuz eta askatuz egiten den euskal dantza ezaguna.

**ZINTTÚRA**, zintturía (c). izena. Cinturón. *Ikusi zelako zintturia erosi doten.* Sin. pétriñ, zintturóe, -i.

**ZINTTURÓE**, -I, zintturóia (a). izena. Cinturón. *Zintturoia narruzkua danian, da gérrikua trapuzkua, telazko zer bat. Don.* Sin. pétriñ, zinttúra. Ik. gérriko. zintturóia eskátu (c). esapidea. ( eufemismoa.) Komunera joan, kaka egin. *Barkatukostazue, baiña zintturoia eskatzera joan biarrian nago.*

**ZÍNTZ EIÑ** (b). du aditza. Sonarse las narices. *Hodei, artu paiñolua ta zintz eiñ.* Hurrei zuzentzerakoan normalean ZINTZ! soilik esaten da. *Mikel, zintz! Haur hizkeran, txintx.*

**ZÍNTZEL**, zintzéla (b). izena. ZIZEL. Cincel. Sin. goizábal, zulákaitz.

**ZÍNTZO**1. zintzo, zintzúa (a). adjektiboa. Esanekoa. • Formal, obediente. *Oso mutiko zintzua da Mikel.* Hurrez ia beti. 2. zintzo (b). adberbioa. Zintzoki, formal. *Errekauak zintzo asko eitten dotsa amai./ Zintzo portau da.* Hurrez, batik bat. Ant. zintzo egon.

**ZINTZÓTU** (c). da aditza. Zintzo bihurtu. • Volverse formal, obediente. *Aspaldixan asko zintzotu da gure mutikua.* Umeez, ia bakarrik. Sin. formáldu.

**ZÍNTZUR**, zintzúrria (d). izena. Nuez de la garganta. Don. Sin. gangárda. Ik. íntxaur.

**ZIPITTA** Ik. zibítta.

**ZIPÍTZIK** (d). esapidea. ZIMITZIK (ARAM.). Ezertxo ere ez; partitiboan, ezezko esaldietan. • Ni pizca, ni brizna. *Arek eztotsa iñoi zipitzik pe emungo./ Ain garbixa da eze, etxe aretan eztozu zipitzik pe ikusiko lurrian. Zipitzik pe, ia beti.*

**ZIPLI** Ik. zápla.

**ZIPRIZTIÑ, ZIPRIZTINDDU** Ik. txipriztínddu, txipríztiñ.

**ZIRÁUN, ziráuna** (b). izena. ZIREUN. Suge antzekoa, pozoirik gabea. • Lución, ciega. **Ziraunak ugari ikusten die bedarrondua batzerakuan.** Gazteleraz ere "una zirauna" entzun ohi da.

**ZÍRI1. ziri, ziríxa** (b). izena. Zurezko edo burdinazko atal estua, nonbait sartzeko erabiltzen dena. **Ziri batekin lotuta dare bi abiak.** Sin. kuiña. **Ziririk onena ezpal berekua ei da** (c). esaera.

Kidekoen eztenkadak izaten direla mingarrienak, barren. **2. ziri, ziríxa** (c). izena. Egurra bringatzeko zurezko edo burdinazko kuina. **Ekarri porria ta zirixak baldo au erdibitzeko./ Egurrezko ziri bat eizu aizkoriakin bittarte orretan sartzeko.** Egur handiak zatitzeko erabiltzen direnei **ziri edo burdinziri.** Ik. porra-zíri, txinga. **ziríxa sartu** (c). esapidea. Gezurra sinistarazi, adarra jo. • Hacer creer una mentira, engañar. **Ziri edarra sartu dotse askoi Torreviejako apartamentuekin.** Ik.

**larakúa sartu, porrúa sartu, ziripote. 3. ziri, zirixa** (d). izena. Oihalgintzan, kanilla, anezkaren barruan doan kainaberazko zotza, non zeharraria biltzen den. • Canilla o carrete de la lanzadera en el cual se enrolla el hilo de la trama. **4. ziri, zirixa** (d). izena. Linu edo gari azaoak lotzeko egurrezko makilatxo okerra, puntan kakutxoa duena. **Olase artu eskutaratxo bat, dozena bat zer, buelta emon da biurtu; zirixak pe izaten zien alde baten kakutxua daukenak, zirixak egurrezkuak.** **Juana.** AZAOKETARAKO ZIRIXa ere bai. **5. ziri, ziríxa** (d). izena. Berakatz, kipula, porru eta

halakoei zahartzen direnean barruan ardatz modura sortu ohi zaien zil gogorkotea. Baita zuhaitzei, pinuari adibidez, zahartzen denean bereizten zaien erdiko ardatza. **Bein berrogetamar bat urte ezkeru zirixa eitte jakue piñuei./ Zirixa eindda dare porruak.** ZIRIXA EI Ik. kípula, zil.

**ZÍRIKA** (c). adberbioa. Zirikatzen. • Azuzando, chinchando. **Beti alkarri zirika dabitx./ Ez ari asi neri zirika.** NORI zirika.

**ZIRIKADA, zirikadia** (d). (Eibar) Eztenkada, adar-jotzea. **Onelakua gendun Trapu-trapu be. Beti norbaiti zirikadaren bat nundik sartuko ibiltzen zan. (SM Zirik)**

**ZIRIKALÁRI, zirikalaríxa** (c). adjektiboa. ZIRIKATZAILE. Zirikazalea. • Azuzador, -a. **Ola gauzak etaratzen ibiltzen dana bestiai, zerian, zirikalarixa. Klem./ Orregaitik ez ei ziran falta zirikatzailliak diskursua ein zeixan axaxa emonaz. (SM Ezten).** Ik. ziríkau.

**ZIRÍKAU** (c). du aditza. ZIRIKATU, ZIRRIKATU. Zirikatu. • Tentar, azuzar. **Beti anaia zirikatzen ibiltzen da negar eraiñ arte./ Puxkat zirikau ezian etzan euskeraz ikasten jarriko.** Ik. áxaxa émon.

**ZIRIKILLOTE1. zirikillote, zirikillotia** izena. (Eibar) Ukendu bat. **Zauri orrendako amandriak dauka zirikillotia. (AAG Eibes)2. zirikillote, zirikillotia** (Eibar) Kalabaza egosiarekin eta azukrearekin egiten den gozokia; kalabaza-mermelada. • Cabello de ángel. **Bazkarittan postre berezixa daukagu gaur: zirikillotia. (AAG Eibes).**

**ZIRÍMIRI, zirímirixa** (b). izena. Lanbroa. • Llovizna. Ezaguna baina gutxi erabilia, baserrian behintzat. LANBRO da arrunta

**ZIRINDDU** (d). da-du aditza. Zirinez zikindu. **Txal gaztiak baztarra guztiak zirinduittu.**

**ZÍRIÑ, ziríña** (a). izena. Hegazti-kaka. • Excremento de ave. **Ziríña darixola ibiltzen die usuak.** Beste abere batzuenari ere esan dakioko oso birina denean, beherakoaz daudenean eta.

**ZIRIPOTE, ziripotia** (d). izena. (Oñati) Gezurra. **Ziripote ederra sartu xoskuk orrek.** Ik. ziríxa

sartu.

**ZIRI-SARTZÁILLE**, **ziri-sartzaillía** (c). adjektiboa. Ziriak sartzen dituenak. • El/la que miente o engaña con habilidad. *Zirisartzaillia, gizurrakin egixan zera esaten dabena. Egixan kolorian gizurra esan da zirixa sartu. Klem./ Alakua zan gure Trapu-trapu ziri-sartzaille okerra. (SM Zirik).*

**ZIRÍTTU**1. **zirittu** (d). da aditza. Landareari barruko zila, ziria, garatu. Sin. **zílldu**. 2. **zirittu** (d). da aditza. Ziriz enborra erdibitu.3. **zirittu** (c). du aditza. (lagunartekoa.) Larrua jo norbaiti. Oso tabernakoa. • Follar a alguien un hombre. Muy de taberna. *Lagaidak neri, laster zirittuko juat eta*. 4. **ziríttu**, **zirittúa** (c). izena. Ziritze saioa. *Azelakotxe zirittua emungo notsaken baztarreko ari.*

**ZIRI-ZULO**, **ziri-zulua** (d). izena. Txondorrari egiten zaion zuloa bizitasuna emateko. *Ziri-zulua, baiña zulo aundixa ezta biar izeten, bakarrik arnasia artzeko beste. Cand. Goialdean edo behealdean egiten ziren. Sin. subegi (Eib.) Sin. ondozulo.*

**ZIRKINZÚLO**, **zirkinzulúa** (c). izena. Rincón, escondrijo. *Zirkinzuluak? Ezkutulekuak ero, bittarte txikixak ero. Klem./ Etxe arek badauka makiña bat zirkinzulo./ Beian euki giñuan zirkinzulo bat. Labe ta danak aintxe. Aniz.*

**ZIRKIÑ**, **zirkiñe** adjektiboa. (Leintz) Avaro, roñoso. (Aran Gatz).

**ZÍRKU EIÑ** (d). esapidea. Zirkin egin, txokea ebitatu alde batera eginez. • Esquivar la colisión. *Zirku eiñ dau ero. Ola bat zuzenian datorrenian, ra!, albora aldetara; zirku eittia. Ume bat aintxintxika doianian, ra! albotik zirku in jao.*

**ZÍRRI**, **zírrixa** (b). izena. XIRRI. Toque furtivo. *Zirri edarrak eitten dotsa kriadiak*. Ik. Toribio Etxebarriak nola definitzen duen **ZÍRRI** El**zírrika** (b). adberbioa. Zirriak egiten.

**ZIRRÍ-ZÓRRO**, **zirrí-zórrua** (d). onomatopeia. Arnasa hartzerakoan egiten den zarata txarra. • Se dice del ronroneo al respirar. *Pulmoietatik izurrauta dago. Arnasia artzerakuan egundoko zirri-zorra etaratzen dau.*

**ZIRRIBORRAU**, **zirriborraua** adjektiboa. Marrazkiak dituenak; estanpatua. (Lar Antz).

**ZIRRÍBORRO**1. **zirríborro**, **zirríborrua** (c). izena. Garabato. *Lapitzakin ero zerakin eitten dien borroiak, garabatuak. Zirriborrua besteik ezta eitten orrek eta; umiagaittik. Klem. 2. zirríborro, zirríborrua* (b). izena. (Oñati) "Cosa mal hecha, revuelta<i>. Zirriborro bat eiñ:</i> naaste bat eiñ." (Izag <i>Oñ</i>).

**ZIRRIKATU** Ik. **ziríkau**.

**ZIRRIMARRA** **ZIRRIPARRA**. Ik. **zarrámarra**.

**ZIRRINDÁRA**1. **zirrinddara**, **zirrinddaría** (d). izena. Lur sail luze eta estua. • Franja de terreno larga y estrecha. *Kamiño onduan dauke zirrinddara bat ezetarako eztana*. 2. **zirrinddára**, **zirrinddaría** (d). izena. Ilara estua, landareena, adibidez. • "Fila sutil" (Etxba Eib). *Ortu baztarrian erein ddot porru-azi zirrinddara bat.*

**ZIRRIPARRA** lk. zarráparra.

**ZÍRT ERO ZÁRT EIÑ** (b). esapidea. Erabaki bat hartu. • Decidirse por una u otra cosa. **Dudan nago, baiña laster zirt ero zart ein biakot.**

**ZÍRTI ETA ZÁRTA** (c). adberbioa. Kolpeka ezker-eskuma. • A golpes. **Lengo maixuak zirti eta zarta ibiltze zittuan umiekin.**

**ZIRTÍ-ZARTA1. zirtí-zarta, zirtí-zartia** (d). adjektiboa. Zirt edo zart erraz egiten duen pertsona. • Se dice de las personas muy decididas. **Pantxika beti izan da zirti-zartia. 2. zirti-zarta** (c). onomatopeia. Jotzearen onomatopeia. **Zirti-zarta, egundukuak emun jotxan.**

**ZÍTTAL, zittála** (c). adjektiboa. Jenio gaiztokoa, beti berea egin beharrekoa, inori gaizki opa diona... • De pésimo genio, bellaco. "Que hace la suya pero sin brusquedad." (Izag Oñ). **Zittalaua da zittalauagaztaiña lokotza lezkotxe zittala izan esapidea.** (Eibar) Oso zitala izan. (AAG <i>Eibes</i>)

**ZITTÁLDU1. zittaldu** da-du aditza. Volver(se) iracundo, irritable. **Lanai laga zotsanetik ziero zittalduta dago. 2. zittaldu** (b). da aditza. Zauria gaiztotu. • Enconarse una herida. **Urratutxo bat zittaldu ta gaizki ibilli zan.** lk. gaiztótu.

**ZITTALKERÍA, zittalkerixía** (c). izena. Zitalaren ekintza edo portaera. • Bellaquería. **Oin be pentsauta eukiko dau zittalkerixan bat.**

**ZITZ** lk. sits, zíetz.

**ZIZEL** lk. zíntzel.

**ZIZÍPOZO, zizípozua** (c). onomatopeia. ZIZIPAZA, -IA. /s/ edo /z/ren ordeaz /c/ ahoskatzen dutenez, eta oro har ahoskera problemak dituztenez "zizipozua" edo "cicipozu" (gazteleraz legez ahoskatuta) dutela esan ohi da. • Ceceo. Dícese del defecto de pronunciación que consiste en pronunciar la /c/ española en vez de /s/ o /z/ euskaldunes, o algún defecto similar. **Fernandon anaiak zizipozo demasa dauka.**

**ZÍZTRIÑ, ziztriña** (b). adjektiboa. Argala, geldigorra. • Esmirriado, -a, poca cosa, inquieto, -a. **Ume ziztriñ onek leporaiño nauka.**

**ZIZTRO, ziztrua** izena. (Eibar) SISTRO, -UE (LEIN.). "Carnero impotente. Lekuko bakarrari jasotako berbia; badirudi edozein animalixa antzurendako erabili leikela." (SB Eibetno). Leintzen, beriz, potro-alerik ez duen aberea (Lein.).

**ZÓI, zóixa** (c). izena. Belar eta guzti, aitzurrez edo laiaz ateratzen den lur pusketa osoa. • Tepe. **Txaboliai teillatuan zoixak jarri bia dotse.** Sin. zótal.

**ZÓKALO, zókalua** (c). izena. Zócalo.

**ZÓKO, zokúa** (c). adjektiboa. Bentilazio gutxiko lekua, eguzkirik sartzen ez den parajea. • Dícese del sitio o paraje sombrío, encajonado. **Zuen soziedadia politta dok, zoko xamarra izatia eze./ Paraje zokuan dago Plazentzia. Paraje, leku eta gisako hitzei lotua, batik bat.**

**ZÓLI, zolíxa** (d). adjektiboa. Ernea, adi egon ohi dena, beti agur egin ohi duena... Aspaldi honetan txakur argiez entzuten da ia bakarrik. • Se dice de las personas atentas, de las que saludan en la calle, etc. Ultimamente apenas se usa más que para calificar a los perros inteligentes. **Zolíxa atentua ero. Erozein lekutan atento dagon persona bat. Eta txakurragaittik pe bai. zoli egon** (d). esapidea. Erne egon, adi egon. Lehenagoko zaharrek erabiltzen omen zuten. Sin. **árgi égon, erne egon**.

**ZÓPA, zopía** (a). izena. Sopa.**zópak eiñ** (c). esapidea. Harri lau bati indarrez jaurtiz ur gainean saltoak eragin. Gure mutikotan presetan edo osinetan egiten genuen jolasa. *Gure mutikuak zopak eitten diardue goiz guztia./ Baietz amar zopa eiñ; arri onekin.*

**ZÓPAK EIÑ** (c). esapidea. ZOPÁKUAK EIÑ. Harri lau bati indarrez jaurtiz ur gainean saltoak eragin. Gure mutikotan presetan edo osinetan egiten genuen jolasa. *Gure mutikuak zopak eitten diardue goiz guztia./ Baietz amar zopa eiñ; arri onekin.*

**ZOPÁKO, zopakúa** (b). izena. Erdi kiskalitako ogi berezia, puntetan elkartzen diren bi zilindroz osatua gehienetan, zopa egiteko erabiltzen dena. **Ekarri pare bat zopako Bolintxotik arrain zopia eitteko.** Sin. **pístola**. Ik. **zópa**.

**ZOPAUNDI, zopaundixa** izena. (Eibar) "Berdura, txarriki, okela eta oillaskuakin egindako zopia. Ogixa be gehitzen jako eta dana batera jaten da. Egun haundixetan egitten da." (SB *Eibetno*).

**ZOPIL, zopilla** izena. (Eibar) Erpila. Ik. **érpill**.

**ZOPIL-MAZO** Ik. **erpíl-mázo**.

**ZOPÍTTA1. zopitta, zopittía** (d). izena. Narru-zopitta ere bai. iz. Larru puxketa adabakinetarako erabilia. • Trozo de cuero que se utiliza para remendar. **Zopittía eztok josteko zeoze? Narru-zopitta bat ipintzia ta... Klem./ Abarkak eitten zien ba ganau-narruakin, da azpizan ipintzen jakuen zopíttia; zopíttia, apurtzen zanian. Luis.** 2. **zopitta, zopittía** (d). izena.

Zopizartzen denean egiten diren zoi txikiak.

**zopittía éindda** (d). esapidea. Tringotuta. Lehortea dela eta lurra gogor-gogor eginda daudenean ZOPITTIA EINDDA daudela esan ohi da. • Dícese que lo está la tierra cuando se halla dura y seca a causa del estiaje. **Ezingo dou goldan eiñ, lurra zopittía eindda dago ta.**

**ZOPIZÁRTU** (d). aditza. ZOPIZARRAN (EDO ZOPIZARRIAN) EIÑ, IBILLI. Aitzurraz belarrak kendu eta lurra garbitu. Pedrok dioenez, basoan **zopizarrian egiten zen eta ortuan saraketan**. Ik. **azalatxúrto, sarátu**.

**ZOR, zórra** (a). izena. Deuda. **Taillerrakin zorrak ein zittuan./ Kriston zorrak dauzka bankuakin.** Pluralean, batik bat. Ik. **s/zórrei olixúa. Alegiña iñ ezkeo eztao zorrik** esaera. (Lar *Antz*).

**Zor zarra, zor txarra** esaera. Aspaldiko zorra, zor txarra.**zorrak bardinddu** (c). esapidea. Zorrak ordaindu. **Gastu galantak ein jittuau eta etxakixat noizko bardindduko dittugun zorrak. zorrían erosi** (c). esapidea. Comprar a crédito, a fiado.

*Esaten dabe Lekeittion da zorretan erosten dala dendetan.* Sin. **apuntera erosi**.

**ZORÁBIXO**, **zorábixua** (d). izena. Zorabioa. • Mareo. **Zorabixua erabiltze zan len; mariua; antzerakua beintzet. Zorabixua daukat, ero. Klem./ Zorabixua ein jako mezetan.** Orain MARIO edo ONDOEZ esan ohi da. Ik. **mário, ondóez.**

**ZORAGÁRRI1**. **zoragarri, zoragarríxa** (b). adjektiboa. Oso ona. • Muy bueno, -a, encantador, -a. **Egualdi zoragarríxa ein zeban atzo./ Persona zoragarríxa zan.** 2. **zoragarri** (b). adberbioa. Oso ongi. **Zoragarri pasau giñuan Ansón.**

**ZORAKÁRI1**. **zorakari, zorakaríxa** (d). izena. . lolium tremulentum. Iraka. • Cizaña. Reigrasaren tankerakoa. Irinari gusto txarra ematen dio. Batzuek buru handiagoa omen dute eta beste batzuek txikiagoa. Txikiagodunari ANSUATEGI BEDARRA deitzen omen zaio, eta hau zelaietan egoten omen da. Etim.: zora+gari, ziurrenik. Sin. **iráka.** 2. **zorakari, zorakaríxa** (d). adjektiboa. Ixturetatik ihes egiten zalea den behi sorgin eta lapurra. • Vaca aficionada a escapar de los cercados. **Euki giñuan bei zorakari bat, beti sagar artera iges eitte zoskuna./ Zorakaríxa dok e, bialtzen dok bos bei batera, da jeneral bei formalak alkarrekin ibiltzeittuk larrian, baiña bat baldin bada kuadrillan gustatzen etxakona, aura jutun dok ola begira, an arrapau ero bestia, da ari zorakaríxa. Sorgiña ero zorakaríxa. Don.** Arantzazu Mendian ardia da nagusi, eta bitxia da hango ikuspuntu kontrajarria: "Se dice de la oveja acostumbrada a entrar en los cercados." (Izag Oñ).

**ZORAKERÍXA**, **zorakerixía** (b). izena. Locura, insensatez. **Makiña bat zorakeríxa einddakuak ga.**

**ZORAKILLO**, -A Ik. **zorókillo**, -a.

**ZORÁMEN**, **zoraména** (b). izena. De volverse loco, locura, de locura. **Auzoko umiak gurera jolasera datozenian aura zoraména izaten da./ Jente guztia batera datorrenian zoraména izaten da tabernan./ Realak irabazi zebanian aura zan jentian zoraména.** ZORAMENA IZAN, batez ere.

**ZORÁTU** (a). da-du aditza. Volver(se) loco. **Obe dozu joatia zoratu baiño len.** ZORATZEN EGON. esap. Oso pozik egon. Zoratzen dare alabatxuakin.

**ZORDANBÍDE**, **zordanbidía** (c). izena. Zor dan bidea, pasatzeko eskubidea duzun bidea. • Dícese de los caminos por los que determinadas familias tienen derecho a andar, aunque su trazado discurra por terrenos ajenos. **Naiz da aspaldixan bide ortatik ibilli ez, zordanbidia da ta deretxua dauke pasatzeko.** Hitz bakar gisa edota baita ZOR DAN BIDIA &mdash;hirutan&mdash; ahoskatu ohi da. Ik. **elizbide.**

**ZORGARRI**, **zorgarríxa** (d). izena. Zorrak egiteko modukoa. **Coca cola latia zorgarríxa da (garesti ateratzen da). (Lar Antz)/ Auxe da lanbídía zorgárríxa. (Izag Oñ).**

**ZORÍON**, **zoríonak** (a). izena. Felicidades, enhorabuena. **Zorionak emun dosta. zoríonian** (c). adberbioa. En buena hora. **Zorionian juntau zan lagun-kuadrilla orrekin, bestela onezkero kartzelan zan.**

**ZORÍONEKO**, **zoríonekua** (b). izenlaguna. Dontsua, ditxosozkoa; zentzu peioratiboan edo ironikoan. • El dichoso. **Zoríoneko Roldan orrek pe emuten dau makiña bat berbakizun./ Zoríoneko bixkor ibilli biarra dauke gaurko gaztiok.** Asko jorratua den gauza bat aipatzerakoan erabilia, batik bat.

**ZORÍONIAN** (c). adberbioa. En buena hora. **Zorionian juntau zan lagun-kuadrilla orrekin, bestela onezkero kartzelan zan.**



**ZORIÓNTSU**1. zoriontsu, zoriontsúa (b). adjektiboa. Feliz. *Ume zoriontsua da zuen ori.* Ez da asko erabilia. Ant. **glorioso**. 2. zoriontsu (b). adberbioa. Feliz. *Zoriontsu bizi da.* Ik. **glorioso**.

**ZORNA**, zornía (d). izena. Pus. *Zornia? Pasmua. Klem.* la galdua. Sin. **pasmo**. Ik. **puzúnixa**.

**ZORNA BÉDAR**, zorna bedarra (d). izena. . senecio vulgaris. Hierba cana, cardo enano. Beste karduak baino txikiagoa, eta ez hain latza. Lore asko ditu, txikiak eta horiak. Urte guztia dago loratzen eta txoriek gustora jaten dute. Sororako kaltegarria da. Sin. **txori-kárdu**.

**ZÓRO**1. zoro, zorúa izena. Loco, -a. *Zoro guztiak ezta Santagedan.* diru zoro, diru zorúa (c). Erraz irabazitako dirua. *Jokuan irabazittako diru zorua errez gastatzen dok.* dirúa zóro (c). esapidea. Dirua esku betean, ugari. *Len taberniakin dirua zoro erabili zebeñ baiña oiñ majo bajauta dare./ Dirua zoro dagonian ezta pentsatzen ezik izango danik.* Uztari buruz ere esaten da inoiz. Sagarra zoro dago aurten. 2. zoro

**ZORÓ-ÚSAIÑ**, zoró-usaiñak (c). izena. Zorakeriak edo kaskajokeriak egiteko joera edo ohitura. • La tendencia o costumbre de hacer insensateces. *Ibilli i belozidade orretan; ospitalian joango jak zoro-usaiñok./ Ezkondu zanian majo kendu jakon zoro-usaiñak.* Zoro-usaiñak joan edo kendu, batik batik. Ik. **tontó-usaiñak kendu**.

**ZOROÁIZE**, zoroaizía (b). izena. Palabra que unida a diversos verbos significa, según el contexto, ganas de juerga, de hacer locuras, etc. *Gaur kriston zoroaizia daukau ta Ondarruara goiaz./ Zoroaiziak emun zotsan da moja sartu zan./ Gaur kriston zoroaizia dabill.* zoroaizia euki esapidea. Hego-haizea dabilenean ere zoroaizia dabilela esan ohi da.

**ZOROÁLDI**, zoroaldíxa (b). izena. Arrebato de locura. *Eztakitt ze zoroaldik emun dotsan domeka atsaldian lanera joateko./ Urrengo zoroaldixan auskalo ze eitten doskun.* ZOROALDIXAK EMON, batez ere.

**ZOROÉTXE**, zoroetxía (c). izena. Manicomio. *Onek zoroetxia emuten dau.*

**ZORÓKILLO**, -A, zorókillua, -ia (c). adjektiboa. ZORÁKILLO. Zoro samarra. • Locuelo, -a. *Bai, ori be zorokillo majua izan zuan bere denporan.*

**ZORRÉTAN** (b). adberbioa. EROSI. En deuda. *Ni zurekin zorretan nago.* Ik. **zorrián erosi**.

**ZÓRRI**1. zorri, zorrixa (a). izena. Piojo. *Jentia diño Cruz Verde-k zabaltze zittuala zorrixak negoziua eitteko./ Ilddakotik derrepente aldetzen dau zorrixak. Mertz.* Ik. **bartz. gólpe zórrik ez jo** (c). esapidea. Lan apurrik ere ez egin. *Eztau curso guztian golpe zorrik jo.* zórrixak **mántentzera** (d). esapidea. Miseriak pasatzera. A pasar miseria. Lit.: "A dar de comer a los piojos". *Krieda ta al dan lekura, danok, bieko juan. Zorrixak mantentzera. Orduan zorrixa be bazan... Bai ba, etzauan linpiezaik eta. Mertz.* **zorrixán pare** (b). esapidea. Ugaritasun konparaketa. *Umia zorrixan pare egoten da ikastolako atian.* 2. zorri, zorrixa (d). izena. Fruta-arbolen kokoa. • Pulgón. Ik. **koko**.

**ZORRIKETA**, zorriketia (d). izena. Despioje.

**zorriketan** (c). adberbioa. Zorriak kentzen, oiloak bere luma artean pikuka, adibidez. •

Despiojándose, matando los piojos a picotazos (las gallinas, por ej.). *Oilluak zorriketan dabitz egun guztia ta biar eurixa seguru.* Hurrengo egunerako euri iragarpentzat hartu izan da oiloen zorriкета.

**ZORRISTO, zórristua** (d). adjektiboa. Zorritsua, kalamidadea. Pertsonaz nahiz abereez, txakurrez batik bat. • Piojoso, calamidad. **Alako zorristo batekin ezkondu zonan azkenian./ Ator ona, zorristo! (txakurrari).** Apelatibo gisa, batik bat; bestela **zorritsu. Etim.:** **&laquo;zorri-biztu&raquo;; ziurrenez.**

**ZORRÍTSU, zorritsúa** (c). adjektiboa. Piojoso, -a. lk. **zorristo.**

**ZÓRRO1. zorro, zorrúa** (c). izena. Saco que iba con grano al molino y volvía con harina. **Makiña bat buelta eindikak ga zorruakin Bolura./ Zakuan sartu ta gero esate jako ari zorrúa. Errotara baldin badoia: zorrúa. Zakua bete ta eruateko, batek baldin badarria astuan artuta, &ldquo;zorruakin oia?&rdquo; esango jak; da ostera e, gari-kutxatik zorrora botatzen ezta jardutzen, ezta esaten. &ldquo;Zakua betetzen lagunduidak gero zorrúa eruateko&rdquo; Gauza bati bi izen, bi formatan. Don. 2. zorro, zorrúa** izena. (Eibar) Funda de arma, vaina.

**3. zórro, zórúa** (c). adjektiboa. Pentsatzen duena kanporatzen ez duena. • Reservado, -a, arisco, -a, poco comunicativo. **Zorruaua da zorruaua..., egun guztia berakin da etxatsu berbaik etarako./ Anai zarrena beti izan da zorro xamarra.** lk. **mozorro. zorro-zorro** onomatopeia.

"Sonido del dormir profundo. **Horrek daka osasuna, horrek! Jan ondo eta lo zorro-zorro.**" (SB **Eibetno**). **zórro-zórro egon** (c). esapidea. Serio, inori konfiantzarik eman gabe egon, ibili. **Kuadrillan be beti zorro-zorro ibiltzen da.**

**ZORRÓTA, zorrotía** (d). izena. Zorroarekin errotara egiten zen atzera-aurrera. **Zorrotia izaten zuan ba, artu garixoi astuan da. Klem.** Lekuzkoetan, batik bat. Bolura noia zorrotara. lk. **garí-zórro.**

**ZÓRROTZ1. zorrotz, zorrótza** (a). adjektiboa. Afilado, -a. Ant. **amots. lábaiña baiño zorrótza** (c). esapidea. Oso zorrotza.**2. zorrotz, zorrótza** (b). adjektiboa. Pertsona zurrunez eta disziplina zaleez esan ohi da. • Se dice de las personas muy rígidas y disciplinadas. **Oso zorrotza da umiekin.** TXORROTX ere bai. Honek oraindik zentzu despektibo gehixeago du. Bestiekin txorrotza da petral aura, baiña bere buruakin ez.**3. zorrotz, zorrótza** (c). adjektiboa. Zentzu positiboan ere esaten da. • Se dice de las personas agudas, precisas en su trabajo, ingeniosas, etc. **Politikaz eskribitzen dabengan zorrotza da Orzi.**

**ZORROTZ-GARI, zorrotz-garíxa** (a). izena. Errementariari laborantzarako tresnak zorrotzeagatik garitan ematen zitzaion ordaina. **Zorrotz-garíxa. Urtian gari mordua jasotze zeban Errementariak Osintxun. Batzutan kejavu be bai, ze batzuk albokuen erremintak be eruaten zittuen orren kontura. Eus.** Sin. errementari-gari.

**ZORROZTÁILLE, zorroztaillía** (b). izena. Afilador. **Motozerria zorroztailliana eruanda daukau.**

**ZORRÓZTARRI, zorróztarríxa** (c). izena. Tresnak zorrozteko arenarria. • Piedra arenisca de afilar. **Zorroztaírríxa ba are-aríxa, kutxillo-ero, zera-ero atxurrak zorrozteko aríxa. Gure albergako aríxan be zorrozten jittuen zerak. Klem.** Pedalez mugitzen denari **destera.** lk. **arri.**

**ZORRÓZTU** (a). du aditza. Afilar. Ant. **amóstu.** lk. **arrítu.**

**ZORROZTÚRA, zorroztaírríxa** (c). izena. Zorroztaírríxa. • La zona delgada y afilada de un objeto cortante. **Zorroztaírríxa guztia joate jako segíai segarríxa gaíxki erabílli ezkeru.** <ORROZTURIA JOAN, batik bat. lk. **pikadura.**

**ZÓRTZI** (a). zenbatzailea. Ocho.

**gáur zórtzi** (c). Dentro de o hace una semana. *Gaur zortzi da partidua./ Gaur zortzi izan zan konziertua.* Baita *atzo zortzi, biar zortzi, astelenian zortzi...* Ik. *gaur ámabost. mekáuben zórtzi!* (b). interjekzioa. Birao motela, <i>mekauen zotze</i>-n ihesbide umoretsua.  
**zortzíxan-zortzíxan** (c). adberbioa. Cada ocho dias, cada semana (en un día determinado). *Zortzixan-zortzixan pasatzen da butanerua.* Ik. *astían-astían.*

**ZÓRU1. zoru, zorúa** (d). izena. Etxe barruko azpia. Suelo de casa. *Sarrittan esaten juau sukalde inguruan da: &ldquo;*; Donatok dionez, beheko plantakoari esaten zaio, goikoetakoei SUELO.2.  
**zoru, zorúa** (d). izena. Suela de zapato. *Zapaten zorua ero suelia. Zapata-zoruak. &ldquo;*; *Zoruerdixak eittera eruan bia jittuau&rdquo;*; *arreglua baldin badoia. Don. zoru-érdi, zoru-erdíxa* (d). izena. Media suela.

**ZÓTAL, zotála** (d). izena. Zoia. • Tepe. Sin. *zói.*

**ZOTÁRRO, zotarrúa** (d). izena. Goldaren ildo. • Surco del arado. Uberan Uberan *goldazulo esan ohi da. Donatok zotarro dio, eta zotaska esaten dela Elosu aldean. Nire amak goldazoi deitzen dio. Golda-arrasto ere entzun izan da. Bost sinonimo gauza baterako. Etxe batzuetan, porrua sartzeko aitzurrez egiten den ildoari esaten zaio zotarro.*

**ZÓTASKA, zótaskia** (d). izena. (Elosu) Goldaren ildo. Ik. *zotárro.*

**ZÓTINKA** (a). adberbioa. Zotinak eginez. *Egun guztia zotinka pasau dot.* Ik. *negár-zótinka.*

**ZÓTIÑ, zotiña** (a). izena. TXOTIÑ (LEIN.). Hipo. *Zotiña sustuakin joaten i da.*

**ZÓTZ1. zotz, zótza** (b). izena. Makila zati txikiak, sua pizteko eta balio dutenak. • Palitos que valen para encender el fuego, por ej. *Ekarrizu zotz batzuk sua pizteko.* Zenbaitek &laquo;palillo&raquo; esateko ere badarabil, baina honetarako *pálillo esaten da normalean.*  
**Errementarixan etxian zotza burduntzi** esaera. Ofizio batekoak bere ofizioko abilezia edo erreminta etxean falta. *zotza baiño iarraua izen* esapidea. Oso iharra izan. (Lar <i>Antz</i>).2. **zótz eiñ** (c). aditza. Zozketa egin. • Echar a suertes. *Leno kostunbre aundixa zuan ba ola junta bat ero zanian da, zeíñi ze urtengo jaon ero, aginpide ero, zera, ba, zotzak eiñ aundixauak eta txikixauak eta lelengotik esanda aundixa urtetze jakonai au ta bestiai bestia, ba, zotz eittia. Klem. 3. zotz* Ik. *mekauben zotz.*

**ZÓTZAR, zótzarra** (d). izena. Zotz-arra. Errekan zotz baten barruan egoten den arra, peskariak amorrainetarako karnatatzat erabili ohi dutena. • Gusano que se encuentra en el rio en el interior de un palito, y que se usa como cebo para truchas. *Txixariakin ezpadabe pikatzen zotzarrakin probau.*

**ZOTZÉKO SÁRDAO, zotzéko sárdaua** (c). izena. Barrikako zotzetik ateratako sagardoa. • Sidra que se sirve directamente de la barrica. *Botillakua baiño naixao juat zotzeko sardaua.* Zuloa estaltzeko erabiltzen den zotzagatik hala deitua.

**ZÓZO, zozúa** (b). izena. turdus merula. Tordo, mirlo. Ik. *martizozo, urzozo. Zozuak beliai ipurbeltz* (a). esaera.

**ZOZO PAPARZURI, zozo paparzurixa** Turdus torquatus. Mirlo capiblanco.

**ZOZO-BIDIGÁRRO, zozo-bidigárruak** (c). izena. Zozoak eta bidigarroak, ehiztariak ugarien harrapatzen dituzten txoriak. Horrela aipatzen dira sarri. • Dícese de tordos y malvices, piezas más comunes de los cazadores. **Zozo-bidigarrotara goiaz biar goizian**. Singularrean ere esan ohi da. Zozo-bidigarrua ugari dago.

**ZOZO-ZÚRI, zozo-zuríxa** (d). izena. Mirlo blanco. Mutikotan gure sagastian zozo-zuri bat ibili zen. Gure aita oso hunkiturik egon zen, sekula ikusi gabe zuen eta. Diotenez, miloitik bat edo irteten da zuria zozoen artean.

**ZU** (a). izenordaina. Tú.

**ZÚAITZ, zuáitza** (d). ZU-ARITZ (IZAG ANTZ), ZURAITZ. quercus robur. Gorakoa moztu gabeko haritza. • Roble bravío, sin desmochar. **Baiña guk zuaitza beste bati esaten jau, aritz luziai. Aitz motza ta aitz luzia izeten die. Don./ Alerzia bere sasoian botatzen bada, zuaitzan moruan ero akazian moduan geatzen dok. Sebas.** ZU-ARITZ (Izag Antz). Z Ik. zúaizti.

**ZÚAIZTI, zúaiztixa** (d). izena. Haritz luzeak, moztu gabeak, dauden basoa. • Bosque de robles bravíos. **Gure sobarrenian zan zuaiztixa.** Ik. árbólai, zúaitz.

**ZUÁTZ, zuátza** (c). izena. zubatz. Meta. Belarrez, garoz nahiz egurrez egindakoa. META da zabalduagoa, baina ZUBATZ, ZUATZ, ZUBETZ edota ZUGATZ entzun daiteke, batik bat Bergara ekialdeko auzoetan: Aritzeta, Elosu, etab. Ik. bedar-zúbatz, méta.

**ZUATZ-ÉGUR, zuatz-egúrra** (c). izena. Zuatzari, metari, ardatz gisa jartzen zaion haga.

**ZÚBI, zubíxa** (a). izena. Puente.

**Zer da atia zabaldu eta ezin pasau, eta zerrau eta pasau? : zubixa esaera.** (Izag Oñ). Zubiaren igarkizuna.

**ZUBI-ÁNKA, zubi-ankía** (d). izena. Zubiaren arkuak apoiatzen diren zutabe bakoitza.

**ZUBI-BEGI** Ik. begi.

**ZUBILL** Ik. súbill.

**ZÚBIRIN-ZÚBIRINKA** (d). Antzinako neska-jolasa. Bi lagun aurrez aurre esku bietatik helduta jarri honakoa kantatzen, eta besteak azpitik pasatzen hasten dira. **Zubirin-zubirin, nungorin nungo, Frantziarako seme-alabak gerade, urrengo-urrengo pasatzen dana emen geldituko dala. Klem.** Hau esateaz bat azpitik pasatzen ari dena harrapatzen da beso bitartean.

**ZUBITESI, zubitesixa** izena. XVI. mendeko udal-agiri baten agertzen da hitza. Hesiak igarotzeko zubi edo pasalekua esan nahi duela dirudi.

**ZÚEK** (a). izenordaina. Vosotros.

**ZÚKA** (b). adberbioa. Con tratamiento de ZU. **Eztot jakitten abadiakin zuka ala berorika eiñ.**

**ZÚKU1. zuku, zukúa** (c). izena. Patatak desegiten direnean lapikoan sortzen den pure antzekoa. Pura ere bai. **Zukua gelditzen da lapiko ondarrían./ Beratziak inguruan patatia egositta, patata-zukua. Jjp. 2. zuku, zukúa** (d). izena. Erremolatxa egosia, zaia edo gisakoak nahastuz eta zuketuz eginiko abere-jana. lk. **zukutu**.

**ZUKÚRUTZ, zukurútz**a (d). izena. Pavor, pánico. **Ilgo dabela amenazau dabe. Ori da zukurutza sartu dotsena.** ZUKURUTZA SARTU jaso dugu bakarrik. Hasierako ZU hori IZU izan daiteke. lk. **zurkatx**.

**ZUKÚTU1. zukutu** (c). da aditza. Desintegrarse las patatas en el puchero. **Zenbaitt patata klase zukutu eitten da lapikuan./ Batzui patatak zukututa gustatze jakue.** Patatei buruz entzun izan da. **2. zukutu** (d). du aditza. Zukua egin, txerriendako erremolatxa egosia deseginda, adibidez. • Hacer una masa o una especie de puré. **Zukutu zapaltzai be esate jakok; baiña zukutu masa bat eittia be bai. Zukua, aintxiñan, erromalatxia egosten zanian da, zaixakin zukutu; zukua zuan gero txarrixai emoteko ero; egosi lelengo ta gero eskuakin zukutu, zaixakin naastu ta txarrixandako zukua. Klem. 3. zukutu** (d). du aditza. Mahatsa edo sagarra dolarean zapaldu ardoa edo sagardoa egiteko. • Prensar la uva. **Ankekin ero eskubara buruakin ero zeozekin puxkat zukutu geo prensiakin artzeko obeto. Don.** MAATSA ZAPALDU esan ohi da gehiago mahatsaz. Irudizko zentzuan ere bai: Arbolia jausi jakon eta ixa zukutu zeban.

**ZULÁKAITZ, zulákaitza** (d). izena. Cincel. Sin. **zíntzel**.

**ZULÁTU1. zulatu** (a). du aditza. Zuloa egin. • Agujerear, taladrar. **Txakurrak prakak zulatu dost. 2. zulatu** (c). du aditza. Zerbait gestionatzen saiatu. • Incidir, intentar gestionar. **Batian bestian zulatu ezker azkenian topau eitten da lana./ Familixan zulaturkot, ia baten batek lagatzen doskun kotxia.**

**ZULATZEKO MAKIÑA, zulatzeoko makiña** izena. (Eibar) Máquina de taladrar.

**ZÚLDAR1. zuldar, zuldár**a (c). izena. Ganaduei sortzen zaizkien garau zornetsuak. • Diviesos del ganado. **Eztakik arran moduko batzuk, zuldarrak, zela etaratze jakuen ganauei; zeozek pikau itte jotsek eta gero barruan formatze jakuek arrán moduan, eta gero, eldutakuan, estutu ta urten itte juek. Klem. 2. zuldar, zuldár**a (d). izena. Adoleszentzian gaztetxoei irten ohi zaizkien garauak. • Espinilla. **Ganauak eta eukitzeittuen orrek. Eta baitta arpegixan egoten dien orrek, gaztetxuen zer orrek pe, zuldarrak. Klem.**

**ZÚLO1. zulo, zulúa** (a). izena. Agujero.

**zúlo eiñ** (c). esapidea. Lanpostu edo leku batean asentatu, bertakotu. **Tonto-tonto sartu zan ofizina ortan, baiña itxuria zulo ein ddau. zulúa eiñ** (c). esapidea. Zorrak egin, negozio batean, adibidez. **Kriston zulu ein juan taberniakín. 2. zulo, zulu**a izena. Madriguera. lk. **aizeri-zulo, sator-zúlo**.

**ZULÓTE SÁGAR, zulóte sagár**a (d). izena. Sagar mota bat. • Variedad de manzana.

**ZÚMA, zumía** (b). izena. . salix sp.. Mimbre. Garai baten dezente ereiten zen zumea saskiak eta egiteko. ZUMA Z Sin. **mímen, zumitz**. lk. **zumáka. zuma gorri, zuma gorrixa** (d). <i>Salix rubens</i> (?), <i>salix caprea</i>.

**zuma zúri, zuma zurí**xa (d). <em>Salix viminalis.</em>

**ZUMÁKA, zumakía** (c). izena. . salix. Berez, erreka bazterretan eta, sortzen den zumea. • Mimbresilvestre. **Guk zumakia orri. Zumia saillian sartzen zanai. Errekonduan &mdash;au berez, tortuak eoteittuk orrek, zera lotzeko ta&mdash; oni zumakia esaten gontsan; ta gero len asko eitten zuan, plantaziñuak, ta ari zumia. Don.** lk. zidor zumáka, zúma.

**ZUMALÍKAR, zumalikárra** (d). izena. . ZUMALÁKAR. frangula alnus. Arraclán. Arbola ederra egiten da eta erreka ondotan eta leku hezetan hazten da.

**ZUMAR, zumárra** (c). izena. . ulmus glabra. Olmo. **Gaztaiñiai pasau jakona, gaixua-edo sartu zan, da iartu. Zumarra be, danak iartu die, eztao bape. Sebas.** Sin. ólmo.

**ZUMA SÁGAR, zuma sagárra** (d). izena. Sagar mota bat. Mertz.

**ZUMÁTAITZ, zumátaitza** (c). izena. (Oñati) ZUMETAITZ. "El palo que se atraviesa en los caminos para desviar el agua." (Izag <i>Oñ</i>)

**ZUMITZ ZUMETZ.1. zumitz, zumítza** (d). izena. Fleje. lk. zimítz. **2. zumitz, zumítza** (d). izena. Mimbres. lk. zúma.

**ZÚMO, zumúa** (a). izena. Zumo. **Nik zumo asko artzen dot./ Naranja-zumua gustatzen jatzu.** Konposatuetan **-ur esan ohi da (adinekoek behintzat): naranja-ur, limoi-ur, melokotoi-ur, etab.**

**ZUNTXAU** aditza. (Eibar) Acoplar piezas en caliente.

**ZUPA-ZUPIA EGIN** (a). esapidea. (lagunartekoa.) Zakila zurrupatu, edoski. • Hacer una mamada. **Felipe, egidak zupa-zupia politto-politto. (TSE Berb)**

**ZUPIN, zupíña** (d). izena. Egurrak aizkoraz txikitzeko erabiltzen den enborra. **Guk zupíña. Don.** Sin. bálido, trontzil. **poto, potue** izena. (Leintz) Lursail baten sakonunea.

**ZUR** lk. zurézko.

**ZUR-ZINTZEL, zur-zintzela** (d). izena. Egurra fin landu aurretik arbasteko, hau da, handiena kentzeko erabiltzen den erreminta. • Formón. Sin. **formóe, trintxa.**

**ZURAITZ** lk. zúaitz.

**ZÚRAJE1. zúraje, zúrajia** (d). izena. Etxe baten zurezko materiala. **[Etxegintzarako] egur pilla bat eitten zanian, egurra ingaratuta (sic) dauku, zurajia ingaratuta dauku. Don.** **2. zúraje, zúrajia** (d). izena. Etxearen armazoa. Zurez osatutako egitura. **Zurajia modu askotara ein bihar izaten da, hasi lenengo plantan. Atiai kargaderuan egurra, eta gero andik gora bie dana... Don.** Sin. armazóe, -oi, eskéleto.

**ZURBILDDU** (d). aditza. Esnea mudatu, galdu. Hil. Sin. mudau.

**1. ZÚRDA, zurdía** (d). izena. Antzigarra. • Helada muy fuerte en la que los árboles y plantas aparecen cubiertos de escarcha en forma de agujas. **Azelako zurdia zeuan Aixkorripien.** Sin.

antzígar. Ik. lanzurda.

**2. ZÚRDA**1. zurda, zurdía (c). izena. Crin, cerda. *Lepoko zurda dotoriak zittuan zaldi arek.* Don.k dio lepokoari *kriñ eta buztanekoari zurda edo buztan-zurda deitzen zaiola.* 2. zurda, zurdía (d). izena. Gorputzeko ilea. *&ldquo;Zurdatsua aiz i, bizkarrian be zurdia daukak&rdquo;; Bizarra arpegikuai esaten jau; illia burukuai.* Don. Pertsonarenaz gutxi erabilia.

**ZURDA-SÓKA**, zurda-sokía (c). izena. Abere-zurdaz, behiaren buztanekoaz batik bat, eginiko esku-soka. • Cuerda hecha de cerdas de animal. *Ganauen buztanetako zerekin eingo juen.* *Laniakin be igual eingo juen baiña zurdiana gogorraua.* Klem. Ik. euskal-soka.

**ZURDÁTSU**, zurdatsúa (d). izena. Gorputzean ile asko duena. Ik. zúrda.

**ZURÉZKO**, zurezkoa (c). izena. Zurez egina. • Hecho de madera. *Zurezko koillariakin erain bia jako lapikuai./ Bazien gurian zurezko katilluak.* Ontzi eta sukaldeko tresnez ia bakarrik. Gainontzekoei *egurrezko. Zura hitza, bera bakarrik, ez dugu sekula entzun ahal izan eginahalak eginagatik.* **Santu-santua** eztok, ori be zurezkoa dok (d). esaera. Inor ez dela guztiz ona edo santua adierazten duen esaera umoretsua. Santuen zurezko irudiei begira esan ohi da. "Gerritik gorako santuak" esaten zaie Oñatin Kospus eguneko prozesioan ateratzen diren gorputz erdiko bi santuri.**Zur da lur ein** (d). esaera. (Oñati) Harritu. • *"Zur da lur ein dda ama: se ha maravillado sobremanera la madre." (Izag Oñ).* zurezko trajia jantzi esapidea. (lagunartekoa.) Pertsona bat hil. *Zurezko trajia jantzi, eta hankak aurrian diela etara juek. (TSE Berb).*

**ZURGÓLDA**, zurgoldía (d). izena. Zurezko golda, burdinazkoa punta bakarrik duena. *Zurgoldia. Auxe bakarrik burdiña. Egur aundi bat, ona gora eskulekoa, au kertena ta au partikia.* Don. **ZURGOLDAPUNTA** (reja del arado) etxean dutela esan du. Lanean ez duela ezagutu, esegita baizik. Ik. frantzes-gólda, golda áundi.

**ZÚRI**1. zuri, zuríxa (a). adjektiboa. Blanco, -a. Ik. edúrra zúri. zúri pintau (b). Pintar de blanco. *Etxia zuri pintau dabe.*2. zuri, zuríxa (a). adjektiboa. Pálido, -a. *Kolore zurixa daukazu.* zúri-zúri járri (b). esapidea. Ponerse pálido.

*Ikusi zaittuanian zuri-zuri jarri da.* 3. zuri, zuríxa (c). adjektiboa. Lanerako nagia, alperra. • Poco aficionado al trabajo. *Korbatia eta trajia bai, baiña lanian zurixaua da, zurixaua...* BLANKO ere esaten da Eibar aldean: *Arro dotoria, baiña blanco bizi guztian. (AAG Eibes).* Ik. alper, nagi. 4. zuri, zuríxa (c). adjektiboa. Faltsua.5. zuri, zuríxa (d). izena. Enborraren azalaren eta bihotzaren artean geratzen den geruza, balio ez duena. *Egurran defetuak die bat ori, gizenakin eittia. Au bada tablia, baztarrian olako zer bat zurixa esate akona, gizena. Martin.* Sin. kostánera, laka, gizen. 6. zuri, zuríxa izena. (Eibar) lactarius vellereus. Lactario aterciopelado (perretxikua). (SB Eibetno).

**ZURÍKA**, zurikía (d). adjektiboa. ZURIXKA. Zurixka. • Blancuzco, -a. *Uso-tortolia baiño zurikiaua dok etxe-usua. Zurixka entzuten da orain, baina adinekoen artean nahiko normala da zurika.* Ik. orika.

**ZURIKERÍA**, zurikerixía (c). izena. Adulación, zalamería. *Zurikerixan ibilliko jatzu nai dabena konsegidu arte.*

**ZURÍKETA**, zuriketia (c). izena. Blanqueo de una casa, encalado. *Zuriketa on bat pe artuko leuke gure etxiak./ Etxe-zuriketia aiuntamentuan kontura ei da.*

**ZURINABARTU** lk. nabartu.

**ZÚRINGO**, zúringua (a). izena. La clara del huevo. **Gorringua jan da zuringua laga**. Sin. arrátza-zúringo. Ant. górringo.

**ZURITA** (d). izena. columba oenas. Paloma zurita. Sin. uso txiki.

**ZURITTASUN**1. zurittasun, zurittasuna (a). izena. Blancura. **Zer da aurreko zelaixan ikusten dan zurittasun aura?**2. zurittasun, zurittasuna (c). izena. Izotzak belar gainean uzten duen geruza. **Zurittasun galanta zeuan gaur goizian**.

**ZURÍTTU**1. zurittu (a). du aditza. Zuriz pintatu. • Blanquear, pintar de blanco. **Etxiak zuritzeko pinturia erregalatzen i dabe**. 2. zurittu (b). da aditza. Kolorea mudatu, zurbildu. **Galantak entzun arren ezta zurittuko./ Momentu baten zurittu zan da lurrera jausi zan**. 3. zurittu (b). du aditza. Elurra lur gainean jantzi. • Cuajar la nieve. **Edurra eiñ arren eztau zurittu**. 4. zurittu (b). du aditza. Pelar una fruta, un caramelo, etc. **Aitta, zurittuidazu naranja au**. 5. zurittu (c). du aditza. Justificar. **Bere jefia zurittu ezindda bajaukak neikua lan./ Orrekin bere burua zurittu nai izan dau**. BERE BURUA ZURITTU, gehienbat. bere burua zurittu, gehienbat Bere burua zurittu, gehienbat.

6. zurittu (b). zaio aditza. Ilea urdindu. **Zela zurittu jatzun burua!**7. zurittu (d). du aditza. Apostua onartu. • Aceptar una apuesta. **Zurittu nai bok, zurittu**. 8. zurittu (d). aditza. Zorrak ordaindu. • Pagar deudas. **Alde guztietan zorrak jeuzkan baiña aittak zuritze juan**. 9. zurittu, zurittúa (c). izena. Zuriz pintatzea. **Ondo etorriko jako etxeaurriai zurittu bat**.

**ZURÍUNA**, -E, zuríunia (b). izena. Kolore zuriko uea. • Mancha o espacio de color blanco. **Ze ete da Urrupaingo zelaixan dagon zuriuna aura?**

**ZURÍXKA**, zurixkía (b). adjektiboa. Blancuzco, -a. lk. zuríka.

**ZURKAITZ**, zurkaitza adjektiboa. (Antzuola) "Pertsona hotza, gogorra, goxotasun gutxikoa, gustorik ematen ez duena. **Zelako zurkaitza dan./ Goiko Iñaxi da gauzia zurkaitza.**" (Lar Antz)

**ZURKATX**, zurkatxa (Eibar) "Laborria, beldur handia. Eskarmentua ere esan nahi du. **Zurkatxa ez da ez maitte eta ez errespetua./ Emon detsan pasariakin makaleko zurkatxa artu dau.**" (AAG Eibes). lk. zukúrutz.

**ZÚRKUN**, zurkúna (d). izena. Letxuga edo aza bati gogortzen hasten denean kukulu erdian egiten zaion kirtena. Gora egiten duenean GARA esaten zaio. **Zurkuna, auraxe, lelengo azte jakon kertentxo aura. Zurkuna. Da gora ein baldin badau ba, garia. Don**. Behin bakarrik entzun dut. lk. gára.

**ZURRÚMILLO**, zurrúmilla (c). izena. ZURRÚNBILLO, TXURRUMILLO. Remolino de agua. **Kontuz ibilli Bolintxoko presapian zurrumilluak dare ta**. lk. aizé-zurrúmillo.

**ZURRÚMURRU**, zurrúmurrua (b). izena. Rumor.

**ZURRUN**, zurrúna (d). izena. Tetxuak oso altuak zirenean, lekua aprobetxatzeko, haga eta abarrekin ateratzen zen tarteko espazioa, babak lehortzeko-eta erabilia. **Ori zurruna. Beste aga batzuk orren gaiñetik orma gaiñera o zapata gaiñera ipini, da emen gaiñian ba zurruna. Babia**



**sikaketako ta olako gauzetarako. Jesus.** Berba hau ez da Bergara inguruan erabiltzen, baina bai Oñatin. **U** <?php

```
$node = node_prepare(node_load(array('nid' => 201935)));  
print_r($node->body);  
?>
```

<b>ubre</b>: errepe<br />

<b>ulmus glabra</b>: zumar,olmo; olmo<br />

<b>últimamente</b>: aspaldian, azkenaldixan, oiñaldixan • desde hace mucho: aspalditik <br />

<b>último, -a</b>: azken, atzen, azkenengo • último en las cartas: azkenesku • último, rezagado: ardierren • el último año, etc.: joan dan, joan daneko, iraoko<br />

<b>umbría</b>: aiñube, izotzalde<br />

<b>uncir</b>: uztartu<br />

<b>ungüento</b>: ujentu; zirikillote<br />

<b>únicamente</b>: bakarrik, uniko<br />

<b>único</b>: bakar<br />

<b>unicornio, de un solo cuerno</b>: adarbakar<br />

<b>unidad</b>: ale, buru<br />

<b>unirse</b>: alkartu, batu<br />

<b>uno, -a</b>: bat • uno a cada: bana • uno en cada lance: lantzian bat • de uno en uno: banan • unos cuantos: banaka batzuk<br />

<b>uña</b>: atzazkal<br />

<b>urbanita</b>: kaleume<br />

<b>urgente</b>: prixako<br />

<b>urraca</b>: mika<br />

<b>urtica dioica</b>: asun; ortiga<br />

<b>usanza</b>: usarixo, oitura • a la antigua usanza: usarixo zarrera, lenaoko usarixora<br />

<b>usar</b>: erabili, usau<br />

<b>usted</b>: beroi • de usted: berorika<br />

<b>ustilago zea e unger</b>: artaputz; tizón de maíz<br />

<b>uva</b>: maats • grano de: maats-ale • prensar uva: maatsa zapaldu • uva silvestre: txori-maats • uva de gato: belarriko miñan bedar<br />

## **ZURRUNKA** lk. lo-korrósa.

**ZÚRRUT**, zurrúta (b). izena. TXURRUT. El beber, la afición al beber. **Ari be majo gustatze jako zurruta./ Illuntzero zurrutian ikusten dot. zúrrut eiñ** (b). du aditza. ( adierazkorra.) Edan.

Arrautza irakinak zurrut egiten dira eta ez edan. Don.ren arabera ura edo ardoa, ostera, edan, ez zurrut. **Ardaua ta orrek gauza orrek eran. Zurrut esnia, ero artu nai eztaben gauza bat ume bati, manzanillia artu erain biar bajako, &ldquo;ala, zurrut eiñ manzanilla ori&rdquo;. Don.**

**zúrrut eta zúrrut** (b). esapidea. ( adierazkorra.) Edan eta edan. **Atsalde guztia zurrut eta zurrut pasau dou.**

**ZURRUTALÁRI**, zurrutalaríxa (c). izena. ( adierazkorra.) TXURRUTALARI. Edale ona. Sin. zurrutéro.

**ZURRUTÁRA**, zurrutaría (b). izena. Zurrutada. • Trago de bebida. *Esne zurrutara bat eiñ da belaxe nator.* Ik. trágo.

**ZURRUTÉRO**, zurruterúa (c). izena. TXURRUTERO (ADKOR.). Edale ona. • Buen bebedor. *Erriko zurruteruak txikiteuan ikusten dabe alkar./ Zurrutero majua eindda dago.* Sin. zurrutalári.

**ZURTU** aditza. (Eibar) "Txunditu, zur eta lur geratu. *Ainbeste ikusmirak aiñ leku gitxixan, zurtu ninduan.*

**ZUTARI**, zutarixa (d). izena. Harizuta. Oihalaren "zutabeak" dira eta irazkia osatzen dute; haien artetik anezkak zeharraria pasatuko du ehuna egiteko. • Hilo de la urdimbre. *Eta gero, zutarixak, ziarrarixak. Josu.* Hari fuertea behar izaten zen, tentsio haundia jasan behar baitzuen.

**ZÚTIK** (a). adberbioa. ZUTÍÑIK. De pie. *Ezin da zutik egon.* Sin. tente. zútittara ipiñi (c). esapidea. Tente edo ertzaren gainean ipini, ohol bat adibidez. *zutittara lana eiñ* (c). esapidea. Etxearen egiturako egurrak konpresiora lan egin. Ik. *tiran lana eiñ.*

**ZUTÍKO1**. zutiko, zutikúa (d). izena. Zerbaiti eusten zutik dagoen postea. *Postiai esate jako zutikua. Argi postiai zutikua ez. Etxe barruan betik ola ipintzen den zer bat. &ldquo;Oni zutiko bat ipiñiko jotsau&rdquo;; ori dok probisional ipiñiko jau. Da bestia berriz &ldquo;poste bat dao amen&rdquo;. Poste bat, betiko, baztarreko postia, erdikua, ero. Don.* Ik. póste. 2. zutiko, zutikúa izena. . Belar luzea, orri horixkaduna (?).

**ZUTIÑIK** Ik. zútik.

**ZUTÍTTU** (a). da-du aditza. ZUTÍNDDU. Zutik jarri. Poner(se) de pie, erguirse. *Zutittu ezinddako mozkorra zeukan./ Zutittuizu banku ori.* Ohetik *jaiki egiten da, ez zutittu.* Ik. jáiki.

**ZÚZA**, zuzía (b). izena. . calocybe gambosa. Ziza. • Seta de primavera. Belar artean, asun artean, eta horrelako leku zelebretan hazten den udaberriko perretxikua. Zuzalekuak sekretuak izaten dira. Usain finekoa. Perretxikurik estimatuenetarikoa. **Aprilleko zuzia urria baiño obia, maitezeko zuzia ase eitteko gauzia** (d). esaera. Txartzat jotzen zen apirileko zuza. **zuzia lezkotxe fiña** esapidea. (Eibar) Oso fina. *Zuzia lezkotxe fiña dozu a gizona. (AAG Eibes).* Ik. negu-zúza, pago-zúza.

**ZUZÁ-LÉKU**, zuzá-lékua (b). izena. Zuzak hazten diren lekua. *Sekretu osuan eukitze zien zuza-lekuak/ Ixa illian zeuan arte ezotsan semiai esan zuza-lekua.* zuza-lekua ikasi esaera. Zuza-lekua aurkitu. Ik. *txorí ápixia ikasi.*

**ZUZA URDIN**, zuza urdiña izena. lepista nuda. Pie azul (perretxikoa). (SB <i>Eibetno.</i>)

**ZÚZEN1**. zuzen (a). adberbioa. Artez. • Recto. *Arraia ori eztago zuzen./ Bide au artu eta dana zuzen.* zuzenían joan (b). Beste inora gabe joan. • Ir directamente. *Ariznoatik zuzenian joan giñan etxera.* 2. zuzen (a). adberbioa. Behar den bezala, ongi. • Bien. *Gaur etxuat gauza bat eiñ zuzen./ Aspaldixan zuzen dabill gure neskia.* zúzen egon (b). esapidea. Estar en lo cierto. *Orretan zuzen zare.* Ant. . 3. zuzen, zuzéna (b). adjektiboa. Formala, zintzoa; umeez, batik bat. • De buen comportamiento. *Zuen mutikua ezta oso zuzena./ Umiak okerrak geixenak eta zuzenak banakia.* 4. zuzen, zuzéna (b). adjektiboa. Recto, -a, honrado, -a. *Joxe zuzenegixa zan mundu*

**onetarako./ Karlistia izenarren gizon zuzena zan.**

**ZUZÉNDU1. zuzendu** (a). da-du aditza. Zuzen jarri. Enderezar(se). *Zuzenduizu alkondara ori./ Zutik jarri zan bai&ntilde;a ezin zan zuzendu.* Sin. zuzen jarri, zuzen ipi&ntilde;i.**2. zuzendu** (c). du aditza.

Lortu. • Conseguir. ***Nundik zuzendu dozu motxila ori?/ Nundik-andik aixkora bat zuzendu biarran nago.*** Sin. jiráu.

**ZUZI, zuzíxa** (d). izena. (Oñati) "Tea de madera majada, preferentemente de fresno." (Izag Oñ).

**ZUZÍTTU** (d). aditza. (Oñati) "Astillar una cosa (como la tea), despedazar sin triturar un hueso, la leña. <i>Zuzi-zuzi eindda:</i> hecho pedacitos." (Izag <i>Oñ</i>).

**ZUZTAR** lk. **sustar.**